

Osatu berri



2013ko urria | 12. zk.

IRITZIA | 9
'Aulki hutsak'

GURE ELKARTEAK | 12-13
AGIPAD. Drogen Abusuaren
Ikerketa eta Prebentziorako
Gipuzkoar Elkarte

GERTUTIK | 18-19
Ianire Elorriaga

EUSKARA OSAKIDETZAN | 20-21
Bertso afaria eta
trebakuntza ikastaroa



**DONOSTIA UNIBERTSITATE
OSPITALEKO PEDIATRIA ZERBITZUA,
TXIKIENEN ETA GURASOEN ALDEKO LAN ETENGABEAN**

IRAKURKETA ETA OSASUNA

Batzuetan, ahaleginak ondorio onak ere ekartzen dizkigu, eta irakurketak horietako asko izan ditzake aipagarri, are gehiago sakondu eta ikasi nahi dugun hizkuntzan trebatzen laguntzen badigu. Dena dela, neurologiako adituen ikerketako emaitzen arabera, irakurketaren onurak begi bistakoak dira, eta lehentasunezko bost bat aipatuko ditugu.

Hasteko, **buru argitasuna areagotzen du**. Hala izanik, enpatia sustatu eta neuronon arteko bide loturak ere errazten ditu. Beraz, ohitura egiten bada, adinagatik gertatzen den galera saihesteko ariketa egokia da.

Bestetik, gizarte harremanak ere bul-tzatzen ditu. Era berean, adituen esanetan, irakurketak elkarrizketarako hizpidea ere suspertzen du. Horren ondorioz, pertsonen elkarreragina eta gizarte harremanak pizten ditu. Aipatutakoaren harira, Buffaloko Unibertsitateko ikertzaileek argitaratutako *Psychological Science* ikerlanean adierazten denez, irakurketak talde sentimendua ere areagotzen du irakurgai bera duten irakurleen artean.

Eta hori gutxi balitz bezala, **estres maila ere gutxitzen du**. Esate baterako, oheratu baino lehen irakurritz gero, loaldirako ohitura onak sortzen dira, hau da, insomnioari aurre egiteko baliabidea ere izan daiteke.

Halaber, ikusmen sistema ere aktibatzen du. Batez ere, idatzizko letren formak irakurtzeko erabiltzen diren burmuin eremuak astintzen ditu.

Azkenik, **lanbide arrakasta lortzeko osagarri ona ere bada**. Oxfordeko Unibertsitatean egin duten ikerketaren arabera, plazerrezko **irakurketak** eragin handia du lanbide **arrakastarako bidean**, eta nerabezaroran hasitako irakurleek emaitza hobekia lortzen omen dituzte helduaroan.

Hori guztia aintzat hartuta, hizkuntzaren ikasketa prozesua behar bezala burutzeko, ezinbestekoa da halako dohainak garatzea. Hori dela eta, irakurtzen dugun bitartean, euskara ikasi eta finkatu egingo dugu, eta, horrez gain, burmuina bera ere indartuko dugu.

Erradiografia osoa egiteko, euskaraz argitaratutako aldizkari guztietako irakurleen datu batzuen berri emango di-

zuegu. Horrela, bada, herri txikiak biztanleak dira modu konparatiboan gehien irakurtzen dutenak. Horrez gain, zenbat eta handiagoa izan euskararen ezagutza, orduan eta gehiago irakurtzen dira euskarazko aldizkariak, eta irakurle horiek goi mailako prestakuntza zein ikasketak dituzte. Adinari dagokionez, hamazortzi urtetik berrogeita bost urtera artekoa da irakurle multzorik handiena.

Horiek horrela, gure irakurleak gazteak izan arren, urte askotan eutsiko diote buru argitasunari. Modu berean, arlo sanitarioko aldizkariari dagokion irakurle identifikazioa garatuko dute harrotasunez eta zintotasunez. Beraz, ez omen dira estresaren eraginpean egongo, eta sano gozatuko dute leitzean. Neurri berean, ez dute begietako gaitzik pairatuko, testu eta irudi interesgarriek esker begietako giharrak aktibatuko dituztelako. Lan ibilbidean aurretiaz zehaztutako hainbat helburu beteko dituzte, eta horietako asko langile kualifikatuak izango dira euren bizitzako urte luze eta oparoetan. Zerk eskainiko digu gehiago?

URRIA

"OSASUN ARLOAN PRAKTIKA KOMUNITATEAK: PROFESIONAL ETA PAZIENTEEN ARTEKO ERLAZIOAREN MODU BERRIA" JARDUNALDIA.

Ekitaldia 2013ko urriaren 29an, asteartean, Donostia Unibertsitate Ospitaleko areto nagusian egingo da. Mezurik bidali ahal izateko: hdo.izarkiunitatea@osakidetza.net

BILBO ESKUALDEKO HOBETUNTZA TALDEEN ETA BERRIKUNTZA PROIEKTUEN VI. JARDUNALDIA.

2013ko urriaren 31n, ostegunean, Bilboko Bidebarrieta Liburutegian, Bilbo Eskualdeko hobekuntza taldeen eta berrikuntza proiektuen VI. jardunaldia egingo da.

Edozein kontsulta egiteko Prestakuntza Batzordearen posta elektronikoa dago: formakuntza.comarcabilbao@osakidetza.net

AZAROA

HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK EGIAZTATZEKO 2013KO 2. OHIKO DEIALDIA

2013ko 2. ohiko deialdiari dagokionez, azaroaren 9an, larunbatean, euskara azterketaren probak egiteko lekuak zehaztu dira.

Gasteiz: Las Nieves gelategia, EHUko Campusa, Nieves Cano 33.

Bilbao: Industria Ingeniaritza Teknikoko UE, Rafael Moreno 'Pitxitxi' 33, pasealekua.

Donostia: Barriola eraikina, EHUko Campusa, Elhuyar plaza 1.

OSATZENEN XIV. JARDUNALDIAK

Azaroaren 14an eta 15ean, 'Topagunea' lelopean, Osatzen-Familia eta *Komunitate Medikuntzako Euskal Elkarteak XIV. Jardunaldiak* egingo ditu Gasteizko Europa Jauregian.

KALITATEAREN EUROPAR ASTEA

2013ko azaroaren 14an, ostegunean, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko areto nagusian, 09:15etik 14:30era: *'Berrikuntzaren eta Teknologiareneko Eboluzioa arlo sanitarioan eta soziosanitarioan. Azkar gauzatzeko gai al gara? Esperientzak'* jardunaldia izango da. formacion.continuadacruces@osakidetza.net

AUTISTA ESPEKTROKO TRASTORNOEI BURUZKO JARDUNALDIAK

Jardunaldiak azaroaren 15ean Era-kunde Zentraleko areto nagusian izango dira, Gasteizen, goizeko 09:30etik arratsaldeko 18:30ak arte. Izena emateko kuota: 30 euro (lanean bazkaria barne). Helbide elektronikoa: anadelolmopinilla@osakidetza.net

ETIKA ETA ZINEMAREN VI. JARDUNALDIAK

Galdakao-Usansolo Ospitaleko Etika Asistentzialeko Batzordeak egingo ditu. GUOko ekitaldi aretoan, urriaren 15etik abenduaren 3ra bitartean. **Azaroak 5:** 'Osasun langileak eta ezberdintasun sozialak osasun arloan'. **Abenduak 3:** 'Osasun langileak ezgaitasun (fisikoak eta psikiakoak) eragindako ezberdintasunen aurrean'.

Argitaratzailea:

Osakidetza
 Araba kalea 45, 01006
 Vitoria-Gasteiz
 Tel.: 945 006 314
osatuberry@osakidetza.net

Erredakzio kontseilua:

Xabier Arauzo
 Juan Elorriaga

Euskara zuzentzaileak:

Juan Elorriaga
 Mikel Maioz
 EMUN lana euskalduntzeko
 kooperatiba

Koordinatzailea:

Arteman Komunikazioa

Tirada:

7.000 ale

Lege gordailua:

ISSN 2254-450X

Diseinua eta maketazioa:

Arteman Komunikazioa

Argazkiak:

Arteman

Inprimategia:

Gertu (Oñati)

Osatuberry helbide elektronikora jaso nahi baduzu, zure datuak gureru bidali besterik ez duzu.
osatuberry@osakidetza.net

Osatuberrin parte hartu nahi?

Zeu ere protagonista izan zaitezke aldizkarian. Atal hauetan parte hartzeko idatzi osatuberry@osakidetza.net helbidera.

Eta gainera...

Ezetz jakin!

Hizkuntzaren aldeko gramatikaren edo terminologiaren inguruko zalantzarik baduzu, gureru bidali eta erantzun zuzena ematen ahaleginduko gara.

Adibidez: Egokia al da Basurtuko Ospitalea idaztea? Ez, gaur egun, Basurtuko Unibertsitate Ospitalea bere izen ofiziala da.
osatuberry@osakidetza.net



5



12





14



18

19

AURKIBIDEA

2	AGENDA
4	JAKINBERRI: Azken berriak motzean
5 8	 SAKONEAN Donostia Unibertsitate Ospitaleko Pediatria Zerbitzua
9	IRITZIA 'Aulki hutsak'
10 11	OSASUN URRATSAK Garun kalteak dituzten pertsona eta zaintzaileentzako gida
12 13	GURE ELKARTEAK Agipad
14 16	 PLAZATIK Añanako Gatz Harana
17	ZORTZIKO TXIKIAN Josu Renobales
18 19	GERTUTIK Ianire Elorriaga
20 21	EUSKARA OSAKIDETZAN Bertso jaialdia & Trebakuntza ikastaroak
22 23	ATZERA BEGIRA Madinabeitia anaiak eta 1834ko kolera epidemia.
24 25	HEZKUNTZA Gasteizko Erizaintza Eskola
26	TXAPELA BURUAN Getaria
27	POSTAL LEHIAKETA Udako postal lehiaketaren zozketa



BOTIKAK ORDAINTZEKO SALBUESPENAK

Uztailaren batetik aurrera, Lege Dekretuaren aginduz, ekarpen berezia egin behar da botikak erosteko orduan. Halaber, EAEko farmazialariek informatika sistema egokitu dute, erosle bakoitzak egin behar duen ekarpena eta hilean ordaintzeko diru kopuruaren muga zein den momentuan bertan jakin ahal izateko. Horrela, osasun txartela baliagarria da, norberaren errenta maila zein den eta ordaindu beharreko kopuruaren kodea zein den agertzen delako bertan. Pentsiodun guztiek eta haien onuradunek hilean ordaintzeko muga dute, eta, hortik gora egiten badute ere, ez dute zertan ordaindurik izango.

Pazienteak badu diru ekarpena berreskuratzeke eskubiderik, hurrengo kasuetan:

Ordaintzeko salbuespenak:

- Syndrome toxikoa duten pertsonak.
- Ezintasunen bat dutenak, beren araudi berezian adierazitako kasuetan.
- Gizarteratzeko errentak edo kotizaziorik gabeko pentsioak jasotzen dituztenak.
- Langabeziako sorospena jasotzeko esku-bidea galdu duten langabeak.
- Laneko istripuen eta laneko gaixotasunen ondorioz egin beharreko tratamenduak.

GRIPEAREN AURKAKO TXERTOAREN 2013KO KANPAINA

Kanpaina irailaren 23an hasi zen, eta azaroaren 8ra arte iraungo du. Kanpaina arrisku taldeetako pertsonentzat da: 65 urtetik gorakoak, diabetesa edo gaixotasun kronikoak dituztenak eta osasun arloko profesionalak. Gripa gaixotasun infektiboa eta oso kutsakorra da, eta edonori eragin diezaiolke.

Oro har, onbera da, baina birika, bihotz edo gibeledu gaixotasun kronikoa edo diabetesa duten pertsonen kasuan konplikazio larriak eragin ditzake. Horregatik, garrantzitsua da 65 edo urte gehiagoko pertsonak txertoa jartzea, gaixotasunik izan ez arren. Urtero jarri behar da txertoa, birusa aldatu egiten baita. Gaur egun, prebentzio neurri segurua eta eraginkorra da txertoa. Oso erraza da txertoa jartzea. Horretarako, nork bere osasun zentrori deitu behar du edo hara joan, eta nola egin azalduko diote.

MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN ASTEA GOIERRI-UROLA GARAIO ESİ

Goierri-Urola Garaiko ESİk 'Mugi zaitez aire garbiagoaren alde' lelopean egin zen mugikortasun jasangarriaren astearen parte hartzea erabaki zuen, eta, horren harira, ekitaldi batzuk antolatu zituen irailaren 16tik 22ra.

Egunero hiriko aireaz betetzen ditugu birrikak, baina zer ari gara arnasten?

Aurten, 2013an, Mugikortasun Jasangarriaren Europako Asteak hamargarren urteurrena bete du honako lelopean: 'Autorik gabeko hiria', 'Mugi zaitez aire garbiagoaren alde' Hitzordu hori irailaren 16tik 22ra garatu zen, eta inguru osasuntsuagoa lortzea izan zuen helburu.

Hori guztia lortzeko, Goierri-Urola Garaiko ESİk ekimen horretan parte hartzea erabaki zuen, aste horri atxikitzeko eskutitza sinatuta eta astean zehar zenbait ekitaldi antolatuta.

Goierri-Urola Garaiko ESİk herritarrek gonbidatu nahi izan zituen, garraioek hiriko airean duten eraginari buruz eta norberaren ekarpenari buruz hausnartzeko eta ingurumen osasungarriagoa zein aire garbiagoa edukitzeko.

ERABILTZAILERAK ARTATZEKO JARDUNALDIAK

Irailaren 26an, osteguna, 'Osasungintzako Erabiltzaileak Artatzeko Espainiako Elkartearen III. Jardunaldiak Euskadin. Herritarrekin harremanak izateko beste modu bat?' jardunaldia garatu zen Miramongo auditorioan.

Patxi Baztarrikak, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako sailburuordeak, jardunaldi horretan parte hartu zuen, eta "Berdintasuna eta hizkuntzen erabilera osasun asistentzian" aurkezpena egin zuen.

Baztarrikak Osakidetzako bi printzipio orokor hauek aipatu zituen: berdintasuna eta kalitatea. Hizkuntzaren aukera berbera izan behar da gaztelaniaz eta euskaraz, pazienteari zor zaion errespetua bermatzeko.

Horrez gain, bere esanetan, Osakidetzako profesionalok euskara erabili behar dugu beldurrik gabe, euskara okerrean hitz egiten ez dena delako. Hitzaldiaren amaieran, Nelson Mandelaren hitzak aipatu zituen:

"Norbaite ulertzen duen hizkuntzan hitz egiten badiozu, burura ailegatuko zaio. Bere hizkuntzan hitz egiten badiozu, ordea, bihotzera helduko zaio".

Idatzi zure iradokizuna
osatuberry@osakidetza.net
helbidera eta bertan argitaratuko dugu.

Nola idatziko dugu Osakidetzako idazkietan gaztelaniazko "Departamento de Recursos Humanos"?

Giza Baliabideetako Departamendua.

Arrazoibidea: arauaren arabera lehen osagaian "giza" duten hitz elkarketak bereiz idatziko dira eta marrarik gabe.

Maiuskulaz edo minuskulaz idatziko ditugu ospitale eta osasun zentrozen izenak?

Basurtuko Unibertsitate Ospitalea, Lazkaoko Osasun Zentroa.

Eskualdeko osasun zentroak, Erkidegoko ospitaleak.

Arrazoibidea: bereizten badira eta banakakoak badira, maiuskulaz; zehaztu gabe badaude edo pluralean aipatzen badira, berriz, minuskulaz.



DONOSTIA UNIBERTSITATE OSPITALEKO PEDIATRIA ZERBITZUA, TXIKIENEN ETA GURASOEN ALDEKO LAN ETENGABEAN

Donostia Unibertsitate Ospitalean betidanik izan du Pediatria Zerbitzuak berezko garrantzia. Ospitale horren aurrekoak izan ziren Arantzazu erresidentzian eta Gipuzkoako Ospitalean ere pediatria bermatuta zegoen, eta hala jarraitu zuen biak fusionatu eta Donostia Ospitalea eratu zenean.

Zerbitzu honek garapen ikaragarria izan du eta zenbatezinak dira ezarritako berrikuntzak eta egindako lorpenak. Gaur egun honako lantalde honek osatzen du zerbitzua: 37 pediatra, 24 egoiliar, 7 mediku, eta egoiliar bi kirurgia pediatriakoan. Lantalde oso profesionala da eta hainbat ezaugarri bereizgarri ditu, horien artean euskara, nabarmenetakoa. Hain zuzen ere, euskara da guraso eta umeekin erabiltzen den komunikazio tresna nagusia, Euskal Herriko beste edozein ospitaletan baino askoz gehiago. Jaioberrien Zerbitzuko arduradun Oihana Mugaren esanetan, “euskara ume eta gurasoekin komunikatzeko tresna oso-oso garrantzitsua da”.

KUDEAKETA ESTILO BERRIA

Horrez gain, azken bi urteotan kudeaketa klinikoari lotuta hainbat berrikuntza ezartzen dabilta Donostia Unibertsitate Ospitaleko hainbat adarretan, eta horien artean pediatrian ere bai. Hala, asmoa da kudeaketa hurbilagoa eta eraginkorragoa bermatzea.



Profesionalki ere puntan dabiltzala azaldu dute. “Kirurgia kardiala kenduta, denetatik egiten dugu. Intentsiboetan ere ia teknika guztiak lantzen ditugu, jaioberrien ratio oso ona daukagu, pediatriako intentsiboetan ere maila oso altua, nahiz eta altuena ez izan”, laburbildu du Pediatria Zerbitzuko arduradun Joseba Landak. Are gehiago, medikuntzari buruzko aldizkarietan eta mintegietan ere parte hartze garrantzitsua dute eta, esaterako, pneumologian, ospitalizazioan, larrialdietan eta neonatologian ikerketa garrantzitsuak gauzatu izan dituzte. Horregatik guztiagatik ezaguna da Donostia Unibertsitate Ospitaleko Pediatria Zerbitzua Espainiako estatuan.

LARRIALDIETAKO HARRERAN EGOKITZAPENAK

Bestalde, larrialdietara joaten direnak hartzeko hurrenkera zehazteko, berrantolaketa egin dute, protokolo berriagoa eginez. Gainera, epe laburrean Osabide integralera egokitu beharko dira. Batez ere orain arte egiten dituzten protokolo eta jarraibideak estandarizatzean datza egokitzapena. Horri esker, umeen larritasunak eta gaixotasun mailak baldintzatzen du larrialdietan artatua izateko lehen tasuna emateak.



ARDURADUNAK.

Ezkerretik esku-mara, Pneumologia pediatrikoko atalburu Javier Korta, Neonatologiako mediku Oihana Muga eta Pediatriako buru Joseba Landa.



Horrez gain, orain dela urte batzuk larrialdiei lotutako lehen sorospenei buruzko gida kaleratu zuten, itxarongelan dauden gurasoek aintzat har zezaten. Eta antibiotikoei buruzko gida ere kaleratu zuten; ospitaleak berak egindakotik Pediatria Zerbitzura egokitutakoa, hain zuzen ere.

BIRIKAK ETA LOA

Biriken funtzioa neurtzeko laborategi berezia dute Pneumologia Zerbitzuan. Hiru-lau metodo erabiltzen dituzte eta 2 urtetik beherakoekin lan egiten dute, oso leku gutxitan egin ohi duten bezala. Besteak beste, espirometria, ple-tismografia eta barreiradura metodoak erabiltzen dituzte.

Laborategi horretan loari buruzko ikerketak ere egiten dituzte, loaren apnea diagnostikatzeko. Gainera, beste inon ez den sistema bat ere badute: 3 urtetik gorakoekin %85i poligrafiak etxean bertan egiten dizkiete, ospitalera eraman gabe. Hau da, umea lo dagoela, aparatu txiki batez lagunduta, bular aldean zinta batzuk jartzen dizkiete, eta horrek mugimendua, zarata, asetzeta neurtzen ditu. Txikienekin ez dute hala egiten, lo daudenean gehiegi mugitzen direlako.

Hiru urtetik beherakoei, berriz, loaren apnari buruzko diagnostikoa bideo erregistroen bidez egiten diete. Gurasoei umea lotan dagoela bideoz grabatzeko eskatzen diete; eta, gero, haien mugimenduak eta posturak aztertuta medikuek diagnostikoa egiten dute.

ASMA, GAIXOTASUNIK OHIKOENA

Javier Korta arduradunaren esanetan, asma oso-oso presente dago Pediatriako kontsultetan. Euskal Herriko tasa %10ekoa da: batzuk jaiotzez, beste batzuk nagusitzen direnean agertzen dira. Kortak azaldutakoaren arabera, ordea, gehienetan 2-3 urterekin agertzen dira lehen sintomak. Lehenik eta behin, haur horiek

lehen mailako medikuek ikusten dituzte; eta gero horietako batzuk Donostia Unibertsitate Ospitalera bideratzen dituzte.

Asmaren garapena eta ondorioak areagotu ez daitezen, oinarritzko bi aholku ematen ditu Kortak: arrisku faktoreak ekiditea, lehenik, eta medikuak agindutako botikak hartzea, bigarrenik. “Hain oinarritzkoak diren aholkuok ez dira beti betetzen, dela utzikeriagatik asma duten umeen %60k botikak behar bezala hartzen ez dituztelako, dela gurasoek eman nahi ez dutelako. Eta, zoritxarrez, halako zenbait kasutan umeek txarrera egiten dute nabarmen”.

“Asmaren garapena eta ondorioak areagotu ez daitezen, oinarritzko bi aholku ematen ditu Kortak: arrisku faktoreak ekiditea, lehenik, eta medikuak agindutako botikak hartzea, bigarrenik”.

HEZKUNTZA LANTZEN DUTE

Arazoi horregatik, Pneumologia Zerbitzuan ahalegin berezia egiten dute gaixotasunari lotutako hezkuntza lantzeko. “Asko hitz egiten dugu gurasoekin umeen beharra ulertu eta onartu dezaten, hori barneratu dezaten”. Horren harira,

Pneumologia Zerbitzuak gida bat argitaratu du, oso grafikoa dena eta honako kontzeptuak azaltzen dituena: asma zer den, zer egin horren aurrean, nola erabili medikazioa... Gidaz gain, kontsultetan posterrak eta txartelak ere banatzen dituzte, zalantzak argitzeko oso baliagarriak.

Asmarekin jarraituta, ikaste-txeetan gaixotasunak zer presentzia duen jakiteko ikerketa ere egin zuten. Eta honako ondorio hauek jaso zituzten: irakasleek ez dakite beraien ikasleetatik zeintzuk diren asmatikoak eta zeintzuk ez; asma krisi baten aurrean zer egin ere ez dakite; eta legearen aldetik arazoak daudela ere ez. Azken horren arrazoia da irakasleek umeei botikak emateko ezinbestez gurasoen baimena behar dutela. Horregatik, Kortaren taldeak uste du txostenak prestatu behar direla gurasoen bitartez irakasleei banatzeko: umeak zer duen, krisirik badu nola jokatu, zein motako ariketa fisikoa egin dezakeen...

Pneumologia Zerbitzua aintzindaria da azpiarlotan, eta ikerkuntzan ere gogor dihardu. Hala, birikaren funtzioari buruzko hiru bat ikerketa dituzte esku artean eta nitrogeno oxidoaren gaineko beste bat ere bai. Nitrogeno oxidoa asmari buruzko adierazle garrantzitsua da.

Dibulgazioari dagokionez, Donostia Ospitaleko Pediatria Zerbi-

tzuko hainbat profesionalak –tartean Joseba Landak, Javier Kortak eta Oihana Mugak– EHUko Medikuntza Fakultatean eskolak ematen dituzte; eta aurten Pneumologia Zerbitzuak EHUko Udako Ikastaroetan asmaren pneumologiari buruzko ikastaro berezia gidatu du.

URTERO 4.000 ERDITZETIK GORA

Donostia Unibertsitate Ospitaleak ume kopuru handia hartzen du eta urtero 4.000 erditzetik gora izaten dute. Are gehiago, Gipuzkoan arrisku gehien duten erditze edo haurdunaldiak Donostiara bideratzen dituzte beste osasun zentro eta ospitaleetatik. Eta oro har, gero eta ume goiztiar gehiago daude. Oihana Mugaren esanetan, ume goiztiarren joera nabarmen handitzen ari da ernaltze tekniken ondorioz. Hala ere, Mugak ume goiztiarren definizioa ondo zehaztea aholkatzen du: “Goiztiarrak dira 37 aste igaro aurretik jaiotzen direnak; halakoak urtean 300etik gora izaten ditugu. Aldiz, kilo eta erdi baino gutxiago pisatzen dutenak urtean 60 bat izaten dira”.

Guztiak ahal duten bezain hobeto artatzen dituzte, baina teknika eta lan egiteko moduak poliki-poliki aldatzen doaz, hobera. Esaterako, badira ospitalean hiruzpalau hilabeteko egonaldiak egiten dituzten jaioberriak; eta horien garapen egokia eta erosotasuna –baita, guraso eta senitartekoe-

GARRANTZI HANDIKO LORPENAK

Bai Pneumologia pediatrikoan eta baita Poneonatalogian ere, lorpen handiak lortzen dabilta, azken urteotan, Donostia Unibertsitate Ospitalean.





na ere- bermatzeko berrikuntzak gehitzen dihardute. NIDCAP (Newborn Individualized Development Care and Assessment) deritzon protokoloaren bitartez, umeak ahalik eta gutxien maneiatu eta mugitzen dituzte, guneko argitasuna eta soinua kontrolatzen dituzte... Egiaz-tatu dutenez, protokolo horrek umearen garapenari on egiten dio.

Ume jaioberri horien kasuan, ahalegintzen dira gurasoen eta haien arteko kontaktua eta harremana errazten eta areagotzen. "Egunero etxera joaterakoan umea ospitaleko inkubagailuan uztea gurasoentzat oso gogorra da. Horregatik, beraien arteko kontaktua gero eta lehenago hasia bultzatzen gabilta, bai gurasoentzat bai haurarentzat oso onuragarria delako", diosku Mugak.

HIPOTERMIAREN TEKNIKA

Jaioberrien alorrean ere teknika berriak martxan jartzen dihardute; besteak beste, transpiratzaile sofistikatuagoen bidez haurrak aireztatzea; eta zer esanik ez, protokoloan sartzen ari den hipotermia teknika. Teknika berri horri esker, erditze inguruan ume batek arazo latzen bat baldin badu -odolustea edo fetuak sufritzea-, hotzean mantendu

daiteke garuna babesteko. Teknika horrek oso emaitza onak ematen dituela jakinarazi digute.

Donostia Unibertsitate Ospitaleko Jaioberrien Zerbitzuaren ardura da, halaber, Gipuzkoako eskualdeetako beste ospitaleekin koordinatu eta horiei arazoak dituzten ume jaioberriak nola artatu eta garraiatzeko trebakuntza ematea.

EUSKALDUN HARROBIA

Pediatriako hiru profesional hauek eskolak ematen dituzte EHUk Donostian duen Medikuntza Fakultatean; eta Joseba Landa bera da Donostia Unibertsitate Ospitaleko mediku irakasleen arduraduna. Ikasleen erdiak euskaraz matrikulatu dira, eta azken urteetan euskaldunen joera handitzen doala diote pozik. Tamalez, baina, medikuntzari buruz euskarazko material nahikorik ez dagoela aitortu dute, kasu askotan ikasgaiak beraiek moldatu behar izaten dituzte-eta.

Euskarak Osakidetzaren baitan aurrera egiten ote duen galdetuta, berriz, Landak diosku euskara tekniko landu gabe dagoela: "Eguneroko txosten guztiak gaztelaniaz egin behar izaten ditugu, nahiz eta pazienteekin euskaraz komunikatzen garen".

ZABALKUNDEA.

Gurasoei bideratutako hainbat gida eta bestelako euskarri kaleratu izan dituzte larrialdiak artatzen laguntzeko.



SERVICIO DE PEDIATRÍA DEL HOSPITAL DONOSTIA, PEQUEÑOS GRANDES PASOS POR LOS MÁS PEQUEÑOS

El servicio de Pediatría del Hospital Donostia es un referente en toda Gipuzkoa, así como fuera de esta provincia. Este servicio acoge cada año más de 4.000 partos y cuenta con uno de los mejores ratios de neonatos. De hecho, cualquier embarazo o parto de riesgo es derivado habitualmente a este servicio, donde cuentan con un área puntera de Neonatos que aplica a día de hoy el protocolo Midcap para favorecer la relación entre progenitores y niños, y así mejorar el desarrollo de los niños y niñas.

Algunos de sus departamentos más relevantes son el de Neumología, por ejemplo, donde cuentan con un laboratorio para trabajar con menores de 2 años, así como para investigar la apnea del sueño. También, cabe destacar el trabajo que se lleva haciendo en relación al asma, con la publicación de guías, formación a padres y madres e intervención informativa en centros educativos.

Este servicio de Pediatría también destaca por su participación en publicaciones médicas e investigaciones en curso. Tal es el caso, por ejemplo, de los estudios sobre la función pulmonar y del óxido nítrico, por ejemplo.



Iñaki Peña Bandres
Gurutzetako medikua.

'AULKI HUTSAK'



Gaur egun eta Lehenengo Mundu delako honetan heriotza oso gai deserosoa da. Are gehiago geure Euskal Herri honetan. Ekin beharreko tabua da, umeei ezkututzen diegun errealitatea, “aurrera begiratu behar da, ez dago besterik”. Irakatsi ziguten sentimenduak ez adierazten, negar ez egiten, bereziki gizonezkooi. Euskal hiltunen artean, erdaldunekin konparatuta, isiltasun konspirazio hau ez dakit zabalduagoa egongo den ala ez, baina gutxiago garela badakigu, eta esperientzia pertsonalak publikoki azaltzea gehiago kostatzen zaigula ere baietz esango nuke.

Horrexegatik, hain zuzen ere, hain eskertzekoa da abentura honetan apuntatu diren guztien ahalegina. Guztion artean saiatu gara galdera potolo horietako bati erantzuten: “Maite dugun hori hiltzean zer?”. Zer sentitzen dugun, zer gertatzen zaigun, ea ahaztu behar dugun, ea aulki huts hori inork inoiz bete dezakeen,

“Maite dugun hori hiltzean zer?”. Zer sentitzen dugun, zer gertatzen zaigun, ea ahaztu behar dugun, ea aulki huts hori inork inoiz bete dezakeen...

noiz joan beharko ginen laguntza eske...

Dokumental batean biltzen ari gara galderak eta erantzunak. Profesionalenak eta senideenak. Euskara da hizkuntza nagusia, baina gaztekeraz eta ingelesez ere jaso ditugu testigantza batzuk. Lau kapitulutan banatuta dago, gaika: mina, haserrea, egun seinalatuak eta itxaropena. Epilogo batek burutzen du lana.

Geure hizkuntzazko musika garaikidearen alde egin dugu apustua, geure belaunaldikoen alde: Ruper, Gari, Gorka Urbizu... Eta kokalekuak Iruñea, Lesaka, Errenteria, Donostia, Oñati, Aretxabaleta, Bilbo eta Santurtzi dira. Gehiago ez dizuet kontatuko, abenduaren 12an estreinatu nahi dugu 'Arinduz'-eko jardunaldian eta orduan aukera edukiko duzue 'Aulki Hutsak' ikusteko eta entzuteko.

Bestela, laster ikusi ahal izango dugu doluari buruzko beste lan bat, fikziozkoa, film luzea, 'Loreak errepidean' (Jose Mari Goenaga eta Jon Garaño). Hildako maitea ahaztu edo gogoratu, dikotomia bere gordintasunean. Zuzendari eta gidoilari hauek '80 egunean' gogoangarria egin zuten orain dela urte batzuk, beste gomendio bat. Halaber, aurtengo “Zinemaldian” beste lan interesgarri bat estreinatu dute, 'Amaren eskuak' (Mireia Gabilondo), Alzheimerrek jotako emakume (ama) bat erdigunean.

Euskarazko zinema, gero eta osasuntsuagoa eta erakargarriagoa.

Osasuna!

GARUNEAN KALTEAK DITUZTEN PERTSONA ETA ZAINZAILLEENTZAKO GIDA

GORLIZ OSPITALEKO GARUNEKO KALTEAREN PROZESUKO TALDEAK GARUNEAN KALTEAK DITUZTEN PERTSONA ETA ZAINZAILLEENTZAT PRESTATUTAKO GIDA ZABALTZEN DIHARDU. GIDA ELEBIDUNA DA, ETA 2010EAN SORTU ZUTEN, BAINA AURTEN BERRIRO KALERATU DUTE HAINBAT BERRIKUNTZA GEHITUTA. GARUNEAN KALTEAK DITUZTENEN ETAPA GUZTIETARAKO LAGUNGARRIA DA GIDA.



2008an Gorliz Ospitaleko Errehabilitazio Zerbitzuko profesional batzuek **hausnarketa** egin zuten **garun kalteak** dituzten gaixoei eta horien senideei informazio gehiago emateko. “Gaixoak, alta hartuta, etxera bueltatzen direnean, familiek hartzen dute zainketaren zama guztia, eta horiei laguntza eskaini nahi genien. Gainera, gertatu artean jendeak ez daki iktusa izateak zer eragin izan dezakeen bere bizitzan; eta informazio hori guztia modu egokienean nola eman pentsatzen egon ginen”, azaldu du Gorliz Ospitaleko Errehabilitazioko mediku Susana Pinedok.

Arazoarekin kezkatuta, 2009an Gorliz Ospitaleko diziplina askotako profesionalak mahaiaren bueltan elkar-tzen hasi ziren: erizainak, erizaintzako

ASKOREN ARTEAN

Gida hori gauzatzeko, diziplina anitzeko profesionalak elkartu dira, baita paziente eta senide bana ere.

laguntzaileak, logopedak, zeladoreak, fisioterapeutak, gizarte laguntzaileak, terapeuta okupazionalak... Bertan bildutako ideiak, gainera, paziente eta zaintzaile banarekin kontrastatu ahal izan zituzten. “Zailena izan zen diziplina askotariko lankideak batzea eta garuneko kalteei buruzko azalpenak ahalik eta modurik errazenean azaltzea, baina lortu genuen”, diosku Pinedok.

Urtero garun kalteak dituzten ia 400 bat paziente artatzen dituzte Gorliz-en eta horiei guztiei banatzen diete gida. Berez lan hori Gorliz-en bakarrik erabiltzeko sortu zuten arren, Donostia Ospitaleko Errehabilitazio Zerbitzuan ere interesa agertu izan dute, baita Gorlizera pazienteak bideratzen dituzten Galdakao, Gurutzeta eta Basurtuko ospitaleetan ere.

PAZIENTEAREN ETAPAK

Gidak bereizitako hainbat atal ditu: lehenik eta behin, pazienteari harrera egiteko, Gorliz Ospitalean zer zerbitzu eta azpiegitura aurkituko dituen eta nola funtzionatzen duten azaltzen du, baita iktusa eta garun kalteei buruzko eskola zer diren ere; hurrengo atalean, pazienteek tratamenduan izan ditzaketen arazo nagusiak **zerrendatzen** ditu; eta, bukatzeko, alta jasota etxera bidetan pazienteek eta senideek jaso beharreko gomendioak.

Pazienteen arazo nagusiei dagokienez, gidan honako hauek daude jasota: hitz egiteko zailtasuna; likidoak zein jakiak **irensteko** arazoak eta sorbaldako mina, besteak beste. “Arazo oso ohikoak dira: pazienteen %25ek hitz egiteko zailtasunak dituzte; %40k

likidoak zein jakiak irensteko; eta pazienteetako askok, besoa ezin mugitu egoten direnez, sorbaldako min handia izaten dute”, azaldu du Pinedok.

Hiru arazo nagusi horiei aurre egiteko zainketa berezia egiten dute Gorliz Ospitalean errehabilitazio integralaren baitan, eta gidak etxean eta etxeikoentzat ere lagungarriak diren aholkuak ematen ditu.

“Pazienteen %25ek hitz egiteko zailtasunak dituzte; %40k likidoak zein jakiak irensteko; eta pazienteetako askok, besoa ezin mugitu egoten direnez, sorbaldako min handia izaten dute”.

ERREHABILITAZIO INTEGRALA

Gida berbagai dugula, Susana Pinedok azpimarratu nahi du garunean kalteak pairatzen dituzten pazienteek 24 orduko errehabilitazioa egiten dutela, “eta ez bakarrik fisioterapeutarekin lanean daudenean”. Honelaxe azaltzen du: “Gaixo hauentzat errehabilitazio prozesua egun osokoa da, jaikitzen direnetik oheratu artekoa; guztia da erronka, eta lorpen txikiak ere oso garrantzitsuak dira. Horregatik, une oro gaude beraiekin lanean eta jarraipena egiten”.

GARUN KALTEEI BURUZKO ESKOLA

Gida honi eta senide zein zaintzaileei informazioa emateari erabat lotuta dago garun kalteei buruzko eskola, orain dela bost urte sortutakoa. Urteko astearte guztietan egiten dute ordubeteko saioa Gorliz Ospitalean, senideei eta ulertzeko gaitasun egokia duten pazienteei zuzenduta. Helburua da, batetik, azaltzea zergatik gertatzen den iktusa, zer den eta zer mota dauden, arrisku eragile nagusiak eta zer ondorio izan ditzakeen zehaztea, besteak beste; eta, bestetik, pazienteak alta hartuta etxera itzultzen denerako aholku garrantzitsuenak. “Kontuan hartu behar da pazienteen %80 etxera bueltatzen dela eta ez egoitzetara, eta beraien kargu senideak egin ohi direla; hortaz, senideek asko esker-tzen dute laguntza hori”.

SUSANA PINEDO

Garuneko kaltearen prozesuko taldeko medikua. Garun kalteei buruzko gidaren sortzaileetako bat.



Gidan eta eskolan ematen dituzten aholkuen artean oso garrantzizkoa da zaintzailearen oreka lortzea. “Aproposena da senitartekoa zaindu eta, aldi berean, berak autonomia izaten uztea. Egiteko gai diren gauza txikiak zeresan handia dute-eta gaixoaren autoestimuan”, azaldu du Pinedok. Era berean, zaintzaileei gomendio bat luzatu nahi izan die: “Ez dezatela gaixoaren zaintza osoa pertsona bakar baten esku utzi, lana banatu dezatela”. Eta, jakina, erakunde eta elkarteek eskaintzen duten laguntzez baliatzeko ere informazioa eskaintzen dute Gorliz Ospitaleko langileek.

LEHEN MAILAKO ARRETA

Azken urtean Gorliz Ospitalean jomugan duten beste erronka bat da errehabilitazio alorrean egiten dabiltzan lana lehen mailako arretara ere zabaltzea, pazienteen alta eta jarraipena hobetzeko. Izan ere, garunean kalteak dituztenek bizpahiru hilabeteko tratamendua izaten

dute ospitalean; gerora, guztiak urtean birritan kontsultan ikusten dituzte jarraipena egiteko.

ADIN GUZTIETAKOAK

Garunean kalteak dituzten pazienteen artean adin askotarikoak aurki daitezke. Gorliz Ospitalean urtero ia 400 kasu artatzen dituzte eta, horien artean, askoren usteen kontra, ehuneko laurden batek 65 urte baino gutxiago ditu. Eta horietatik gehienek bizitza kalitate hobea lortzen dute, baita nagusiek ere. “Batzuentzat bizitza kalitatea hobetzea komunera bere kabuz joatea da; beste batzuentzat lanera itzultzea, baina guztiak dira aurrerapausoak”, laburbildu du Susana Pinedok.

Garun kalte: *daño cerebral*
Berbagai: *tema de conversación*
Hausnarketa: *reflexión*
Irentsi: *tragar*
Zerrendatu: *enumerar, enunciar*

AGIPAD, DROGEN MENDEKOTASUNARI KONTRA EGITEKO ERREFERENTZIAZKO ELKARTEA

AGIPADEK, DROGEN GEHIEGIZKO ERABILERAREN, PREBENTZIOAREN ETA IKERKETAREN GIPUZKOAKO ELKARTEAK, LAN ERRALDOIA EGIN DU 1980AN ERATU ZENETIK. ETENGABE IKERTZEAK, GIZARTE, OHITURA ETA KONTSUMO ALDAKETETARA EGOKITZEN ASMATZEAK ETA ZERBITZU PROFESIONALA ESKAINTZEAK EMAN DIOTE ERREFERENTZIALTASUN HORI. AZKEN SEI URTEETAN, GAINERA, DROGEN KONTSUMOARI LOTUTAKO ARAZOEI HELTZEAK GAIN, GIZARTEAN BAZTERKETA EGOERAN DAUDEN HAURREI ETA AMEI LAGUNTZEN ERE DIHARDU.



Seme-alaben gehiegizko drogen kontsumoarekin –batez ere heroinaren– kezkatuta zeuden guraso batzuk elkartzen hasi ziren, eta kezka antzekoa zuten osasungintzako profesional batzuk batu zitzaizkien. Hala, guztien artean elkarteak eratu zuten 1980an. Erakunde publikoek laguntza eskaini zieten lan egiteko azpiegitura erraztuz, eta ekimen pribatuak ere babesa eman zien.

Hasieratik bultzatzaileek oso argi izan zuten ezinbestekoa zela ikerketak egitea, hala nola garaian Euskal Herrian eta kanpoan zegoen drogen kontsumoa neurtu eta horrekin batera joerak eta zergatiak aztertzea. EHUrekin egindako lankidetzaren bitartez, ikerketa gauzatu zuten eta, horri esker, bi oinarri nagusi ezarri zituzten beraien egitekoan: heroinaren –batez ere– gehiegizko kontsumoari kontra egiteko, ikerketa, prebentzio eta tratamenduak balia-

tzea; eta horiek guztiak trebatutako eta aurretikako esperientzia zuten profesionalekin gauzatea.

Heroina da AGIPADeko kideek hastapenetan ahotan duten droga, 80ko hamarkadan opiazeo horren kontsumoa oso handia izan zelako Euskal Herrian. Gehiegizko kontsumo hori nabarmendu zen, batez ere Espainiako immigrazioa jaso zuten hiri eta herri industrializatueta. Elkartearen arduradunen esanetan,

“80ko hamarkadan heroinaren kontsumoa oso handia izan zen Euskal Herrian. Gehiegizko kontsumo hori nabarmendu zen, batez ere Espainiako immigrazioa jaso zuten hiri eta herri industrializatueta.”

ESKARMENTU HANDIA.

Drogen gaineko kontsumo eta ohiturak etengabe aldatzen doaz eta AGIPAD beti doa pauso bat aurretik.

droga horren kontsumoak garen oso azkarra du, eta oso erraz desegituratu ditzake familiak. Are eta gehiago, garai hartan heroina kontsumitzaile askok lapurreta eta bestelako delitu asko egiten zituzten, eta horrek gizartean argi gorria piztu zuen.

Elkarteak sortu eta bi urtetara, 1982an, toxikomanoak artatzeko komunitate terapeutikoa sortu zuten. Artikutza inguruan Haize-Gain izeneko erresidentzia zabaldu zuten, toxikomanoek mendekotasuna utzi eta berriro gizarteratzen laguntzeko. Horrekin batera, kaltetutakoei eta haien familiei zuzendutako ambulatorio zerbitzua ere zabaldu zuten; laguntza psikosoziala eskaintzeko.

PREBENTZIO LANA, EZINBESTEKOA
1986an eskola, auzo elkarte, udal eta beste talde zein erakunde ba-

tzuekin elkarlanean drogamendekotasunen inguruko prebentzioa lantzeko zerbitzua sortu zuten. Horren bitartez, gizarteko hainbat alorretan informazioa zabaldu eta beste erakunde eta elkarte batzuek ere helburu horretan zubi lana egitea lortu zuten. Horren baitan, hezkuntzak duen berebiziko garrantzia aintzat hartuta, prebentziorako eskola materiala sortu zuten: idatzizkoa, multimedia... Eskola material hori oso erabilgarria izan da tutore, irakasle eta guraso askorentzat; eta orain gutxi berori katalan, galego eta fransesera itzultzeko eskaera jaso dute.

Familiekin zuzenean ere lan ikaragarria egiten du elkarteak, eta guraso edo senide hauek dira askotan drogazalea argitasunaren bila elkartera hurbiltzeko konbentzitzen duena.

“Kartzelan bertan gaixo horiekin aurretikako lana egiten hasi ziren, horiek kaleratzerakoan tratamenduak egin ahal izateko”.

22 URTEZ PRESONDEGIETAN

80ko eta 90eko hamarkadetan presoetatik erdiek baino gehiagok drogamendekotasuna zuten. Hala, kartzelan bertan gaixo horiekin aurretikako lana egiten hasi ziren, horiek kaleratzerakoan tratamenduak egin

ahal izateko. Gainera, epe horretan GIBen agerpenarekin bat eginda prebentzioaren xedea gehiago bereizi eta espezializatu behar izan zuten. Lan itzela izan da esparru horretan egin dutena, baina iaz, finantzaketa faltaren ondorioz, bertan behera eten behar izan zuten presondegietako zerbitzua.

ERAKUNDEENTZAT ERE ERREFERENTEA

Elkarteak 34 urte daramatza lanean eta hasiera-hasieratik Gipuzkoako erakunde publiko eta pribatuek babesa eman diote, gizartearen aldeko funtzioa betetzen duelako. Horren adierazle da Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Kutxak –bakoitzak bere alorrean– laguntza ematea, jakin badakitelako AGIPADek zerbitzu publikoaren pareko lana egiten duela.

AGIPADen gaur egun 40 langile daude, horien artean gehienak psikologoak eta gizarte laguntzailak, baina baita administrazio langileak ere. Elkarteak 500 bat bazkide ditu eta Euskadin zein Espainiako Estatuan erreferente izateaz gain, nazioartean ere onen handia du. Besteak beste, Reina Sofia saria (1992), Espainiako Drogen Plangintzaren Gurutze Zuria (1996), Foru Aldundiaren saria boluntariorazari (1999), Donostiako Udalaren Hiritar Meretzimenduari Domina (2001), Gipuzkoako Foru Aldundiaren Giza Eskubideen saria (2005) eta beste batzuk eskuratu ditu.



HAURTZOAK, gizarteko bazterketa pairatzen duten ama eta umeei laguntzeko

AGIPADek sortutako azken zerbitzuak Haurtxoak izena du. 90eko hamarkadaren erdian ohartu ziren drogamendekotasunak izan dituzten pertsona batzuen umeei ere portaera desegokiak zituztela eta. Atzerriko beste hainbat esperientzia aztertu ondoren proiektu propioa sortu zuten, orain dela sei urte finantzaketa lortu eta martxan jarri ahal izan zutena. Bidean, gainera, konturatu ziren bestelako arrazoiengatik gizarte bazterketa pairatzen duten ama eta ume asko daudela, kulturen arteko talka eta genero indarkeriaren ondorioz, besteak beste. Horiei laguntzeko, Donostian bertan erresidentzia egokitu zuten, 0 eta 5 urte arteko umeei eta beraien amek –baita haurdun daudenek ere– elkarrekin lan egin dezaten. Proiektu erabat berritzailea da.

Drogen Abusuaren Ikerketa eta Prebentziorako Gipuzkoar Elkarte (AGIPAD)

Bulego Nagusiak:

Javier Barkaiztegi, 23 - 20010 DONOSTIA

Tel.: 943 47 38 64 Faxa: 943 47 38 66

agipad@agipad.es

www.agipad.org

AGIPAD, DECANOS DE LA LUCHA CONTRA LAS DROGODEPENDENCIAS

AGIPAD, Asociación Guipuzcoana de Investigación y Prevención del Abuso de Drogas, se formalizó en 1980, gracias al impulso de padres y madres de toxicomanos, y de los trabajadores de la salud preocupados por el alto consumo de drogas, sobre todo, heroína. Hay que situar su inicio en los años 80, cuando en numerosas localidades de Euskal Herria, especialmente, en zonas industrializadas con una alta tasa de inmigración, había un consumo muy alto de esta droga. Desde un principio, la asociación contó con el apoyo de las instituciones públicas y de diversas entidades privadas. Dos de las principales premisas de AGIPAD han sido ofrecer un servicio profesionalizado con psicólogos, psiquiatras y trabajadores sociales e investigar para adelantarse y conocer de primera mano la influencia y los cambios en el consumo de drogas. Durante todos estos años han trabajado con toxicómanos, familiares, educadores, presos y otros colectivos, incidiendo en la prevención y en el servicio integral de ayuda en la lucha contra la drogodependencia. Además, estos últimos años también están trabajando con madres –embarazadas y sus hijos de entre 0 y 5 años– con riesgo de discriminación social en un proyecto innovador llamado Haurtxoak. AGIPAD es referente también para las entidades públicas y ha recibido numerosos premios de carácter social.



AÑANAKO GATZ HARANA, GATZA SORTU ETA ZAINDUTAKO ONDARE NEURTEZINA

ARABAN KOKATUTA DAGO GESALTZA HERRIA, IZENA, IZAERA ETA ZAPOREA EMATEN DION GATZAGA ERRALDOIAREN INGURUAN. MILAKA URTE DITU GATZAGA HONEK ETA BERE INGURUAN SORTUTAKO GESALTZA HERRIA EUSKAL HERRIKO HIRIBILDU ZAHARRENA DA -1114KOA-. AÑANAKO GATZ HARANA FUNDAZIOA GATZ HARANA BERRESKURATZEKO LAN IZUGARRIA EGITEN ARI DA, ETA HORREN EMAITZA DA, BESTEAK BESTE, UNESCOK GATZ HARANA MUNDUKO ONDARE IZENDATZEKO PROZESUAN BURU-BELARRI JARDUTEA.

Inork besterik gabe Gesaltza herria autoan zeharkatu badu, gauza segurua da hango paisaiarekin zur eta lur gelditu dela, ez baitu parekorik: milaka urtetan gatzu modu tradizionalen landutako hiru hektareako lurzorua, maldan dagoena eta ehunka terrazatan banatutako ehunka larrain dituena.

Gesaltzako ur gaziko iturburuen inguruan aurkitutako lehen giza aztarnak orain dela 5.000 urte ingurukoak dira, eta ordutik hango gatzu oso preziatua izan da; hainbeste, une oro inguruan herrixkak eta hiriak izan zirela; askoz geroago, 1114. urtean Alfontso I.ak Gesaltzari errege forua eman zion, Euskal Herriko lehena, hain zuzen ere.

“1851n Londresko Nazioarteko Erakusketan Gesaltzako gatzak ohorezko aipamena eta brontzezko domina irabazi zuen”.

Mendeetan gatzak berebiziko garrantzia izan du, hotz industriarik egon artean berori zelako elikagaiak iraunarazteko sistemarik eraginkorrena; horregatik, askotan ‘urre zuria’ esan izan zaio gatzari. Adierazgarria da, adibidez, 1851n Londresko Nazioarteko Erakusketan Gesaltzako gatzak ohorezko aipamena eta brontzezko domina irabazi izana.

Gure garaietatik hurbilago, XX. mendean, luzaroan halako historia eta garrantzia izan duen gatz harana galtzear egon zen, hango gatzak merkatuan lehiatzeko zituen zailtasunak ikusita herritar askok beste lan batzuk bilatu zituztelako. Horren aurrean, ondare hura galbidean zihoala ikusita, 90eko ha-



markadan herriko gatz ekoizleek erakundeetara jo zuten laguntza eske. Arabako Foru Aldundiak gatzagaren eta ingurunearen zaintza hartu zuen bere gain eta bera berreskuratzeko proiektu bat idatzi zuen. Hala, 2009an Añanako Gatz Harana Fundazioa eratu zuten. Fundazioa Arabako Aldundiak, Gesaltzako Udalak eta gatz ekoizleen Gatzagak elkarrekin osatzen dute.

Gesaltzako motorra bihurtu den fundazioak hiru helburu nagusi ezarri zituen: batetik, garapen jasangarriaren bitartez, gatzaga kontserbatzea. Hala, gatzu ekoiztearekin bat egitura ere bere horretan zaintzea. Bestetik, kalitate

BERRESKURATUTA

Gaur egun Gesaltzan 2.000 larrain inguru daude berriro lanean. Gero eta larrain gehiago martxan egotea gatzagaren kontserbazioarentzat oso onuragarria da.

onoko gatzu ekoiztea, beste ekoizleekin lehiatu ahal izateko eta, bide batez, bere kabuz finantzatu ahal izateko. Eta, azkenik, herriaren eta eskualdearen garapen ekonomiko, sozial, kultural eta turistikoari on egingo dioten ekintzak antolatzea.

GATZ OSO BEREZIA

Gesaltzako gatzu oso berezia da dituen ezaugarri jakin batzuei esker. Oso kalitate eta purutasun handikoa da. Horren erakusle da, esaterako, 18 Michelin izar batzen dituzten hainbat sukaldari ezagun gatz horren erabiltzaile eta enbaxadore izatea. Pedro Subijana (Akelarre), Andoni Luis Aduriz (Lugaritz), Martin Berasategi (Berasategi),

GATZ LIKIDOA

Ur litro bakoitzeko
240 gramoko
gatz kontzentrazioa
lortzen da.



LANTZAK

Terraza eta kanaletan
sortutako estalaktita
formako ur gazidun tan-
ta gogortuak dira. Gaur
egun oso preziatuak.

puntu batzuetara bideratzen da eta han, eguzkiaren beroak lagunduta, litro bakoitzeko 240 gramoko gatz kontzentrazioa lortzen da. Gatz likido horrek oso harrera ona du eta hala ontziratuta saltzen dute. Eta bestetik, lantzak, Gesaltzako terraza eta kanaletan sortutako estalaktita formako ur gazidun tanta gogortuek osatuta. Iraganean ez zitzaizen baliorik ematen, baina gaur egun oso preziatuak dira.

Kalitate handiko gatz horiek dagoeneko munduko 20 herrialdeetan saltzen dira, eta irabazi guztiak gatz haranean inbertitzeko baliatzen dituzte. Fundazioaren gerente Roberto Lopez de Eguilazek jakinarazi duenez, 2012an 250.000 euroko salmentak izan zituzten.

“Zenbat eta ekoizpen gehiago egon, gero eta hobeto zaintzen da gatzaga eta horren egitura. Gatzunak egurrari eta egiturari on egiten die, intsektu eta antzezoetatik babestuz”.

GATZ EKOIZLE GAZTEEN TREBAKUNTZA

Azken urteetan, Fundazioak egin-dako lan erraldoiaren ondorioz, larrain askoz gehiago daude berriro gatzaga ekoizten. Lopez de Eguilazek emandako informazioaren arabera, gatz haranaren erdia berreskuratua dago eta 2.000 bat larrain daude martxan. Ekoizpenaren geldiuenearen ondorioz, horietako asko erdi estalita zeuden, baina garbitu eta lanean jarri dira berriro. Izan ere, fundazioaren gerentearen esanetan, “zenbat eta ekoizpen gehiago egon, gero eta hobeto zaintzen da

gatzaga eta horren egitura. Horren arrazoia da gatzunak egurrari eta egiturari on egiten diela, intsektu eta antzezoetatik babesten dituelako”.

Horri lotuta, azken bi urteotan gatz ekoizle gazteen trebakuntza ere lantzen dihardute. 2012an bost gazte aritu ziren, eta 2013an beste bost. Horren helburua da herriko eta eskualdeko gazteei guraso eta arbasoen lanbidea ezagutzeko aukera ematea, batetik, eta lanpostu berriak sortzea, bestetik. Hain zuzen ere, fundazioko arduradunen ustetan, gatzagak langileak behar-ko ditu laster: maiatzetik irailera bitartean gatzaga ekoizteko, eta urteko gainontzeko hilabeteetan mantentze lanak egiteko.

GESALTZA GIZATERIAREN ONDARE IZATEKO PROZESUAN

Orain dela urte batzuk fundazioko gerenteak hedabide batean esan zuen Gesaltza Arabarako izan daitekeela Guggenheim Bilborako izan denaren parekoa. Une hartan batzuek esaldi hura lelokeriatzat hartu bazuten ere, denborak erakutsi du Gesaltzak askok uste baino oihartzun handiagoa hartuko zuela. “Munduan oso leku gutxitan aurki daiteke honen pareko paisaiarik eta hain ondo zainduta dagoen antzinako ondare eta tradizioz. Are gehiago, ia ezinezkoa da hiru hektareako lurzoruan balioa duten hainbeste gauza aurkitzea”, borobildu du Lopez de Eguilazek.

Eta horren guztiaren erakusle da Unescok Gatz Harana Gizateriaren Ondare izendatzeko hasitako prozesua. Hala ere, prozesua oso luzea da: lehenik eta behin, Unescok fundazioari eskatutako dokumentazio ugaria bidali zitzaizen, gatz haranak dituen balio mota guztiak egiaztatzeko. Gerora, aurtengo irailean, ebaluatzaile batek Gesaltza bisitatu du eta lekuan bertan egiaztatu ahal izan du Gesaltzak eskaintzen duena. Hortik aurrera, ebaluatzaile horrek egindako txostena eta fundazioak aurretik aurkeztutako dokumentazioa batu, eta 2014ko lehen seihilekoan hartuko du Unescok erabakia.

FUNDAZIOA


90eko hamarkadan, gatzagaren egoera kaskarra ikusita, Arabako Aldundia egin zen bere kargu. Eta gerora Aldundiak, Gesaltzako Udalak eta gatz ekoizleek fundazioa sortu zuten.

Eneko Atxa (Azurmendi), Francis Paniego (Marques de Riscal) eta bestelako sukaldari handiek ekoizpenean parte hartu eta Gesaltzako gatzaga kontsumitzen dute.

Gatza modu tradizionalen ekoizten dute, han beti egin ohi izan den bezala: haranaren goialdeko iturburuetan sortutako ur gazia kanalen bidez garraiatu eta gatzuna zabaldu egiten da. Hurrengo egunerako gatzaga kristaldu egiten da sukaldarientzat hain preziatuak diren ezkata edo xaflatan. Eta, gerora, gatz arrunta ere ateratzen dute.

Baina badira beste gatz mota batzuk ere. Batetik, gatz likidoa. Gatzuna horretarako prestatutako

URTE OSOAN BISITA DAITEKEEN ONDARE PAREKAEZINA



Añanako Gatz Harana urte osoan dago zabalik goizez eta arratsaldez, nahiz eta uda den bisita gehien duen sasoi. Paisaia poliedrikoa da, parekorik ez duena; eta egurrez, harriz eta buztinez egindako terrazek osatutako arkitektura bitxiari ur gazia garraiatzen duten kanal ugariak batzen zaizkio. Gainera, hainbeste gatz egoteak biodibertsitate oso berezia bermatzen du, nazioarteko garrantzia duen hezegunea, besteak beste. Gero eta jende gehiago joaten da Gesaltza ikustera, batez ere Euskal Herrikoa, baina poliki-poliki Espainiako eta beste herrialdeetako bisitariak ugaritzen ari dira.

Milaka urtetan iraun duen ondare hori bere horretan ezagutu daiteke, baita gatzak nola egiten duten ikasi ere. Eta azkenaldian, fundazioa beste mota bateko turismo eskaintza ere lantzen dabil: turismo osasuntsua. Martxan dago jada gatzaren spa izenekoa, non bisitariak aukera duten besoak edo hankak litroko 240 gramoko gatz kontzentrazioa duen uretan sartzeko. Eta orain ur gazian flotatzeko gune bat prestatu nahi dute, Itsaso Hilak duen gatz kontzentrazio antzerakoarekin.



SALINAS DE AÑANA, UN PATRIMONIO INCALCULABLE

Salinas de Añana es una localidad alavesa cuyo nombre, carácter y sabor le viene de las legendarias salinas situadas en el municipio. Estas salinas, que datan de hace miles de años, han propiciado que se hayan producido numerosos asentamientos humanos a su alrededor, así como, que en 1114 Alfonso I otorgara el carácter de villa a Añana, siendo ésta la primera en toda Euskal Herria.

Estas salinas, que obtuvieron la medalla de bronce y un reconocimiento especial en la Exposición Universal de Londres de 1851, fueron explotadas de manera tradicional con éxito hasta mediados del siglo XX. En aquella época la producción fue decayendo y ya en la década de los 90, la Diputación decidió hacerse cargo de su mantenimiento.

Gracias al importante esfuerzo de la Fundación Valle Salado de Añana, formada en 2009 por la Diputación Foral de Alava, el Ayuntamiento de Gesaltza y la sociedad de salineros Gatzagak, las salinas están viviendo un importante resurgir, revalorizadas y reactivadas por completo; tanto que están en proceso de verse integradas como Patrimonio Mundial de la Unesco. Son muchos los tesoros que esconden y pueden ser visitadas todos los días del año.

JOSU RENOBALLES | ARKITEKTOA. OBRA ETA PROIEKTUEN DEPARTAMENTUA

1 | Osakidetzan arkitektoa. Zer egiten duzu?

Osakidetzako zentro guztiei euren beharrak zeintzuk diren galdetu eta, premiaren zein aurrekontuaren arabera, zer egin eta zer ez erabakitzen dute gure nagusiek. Azterketa teknikoan parte hartzen dugu taldeko arkitektook.

2 | Osasun zentro berriak nork diseinatu eta zuzentzen ditu?

Esleipen espediente baten bidez kanpoko arkitekto batek eraikina diseinatu eta lanak zuzentzen ditu. Gure lana proiektuok euren osotasunean bideratzea da, Osakidetzako beharren arabera, eta proiektua egoki gauzatu dela ziurtatzea. Arkitektura eta Ingeniaritza zerbitzuetan 20 bat lankide gaude guztira. Gerora, beste esleipen espediente bat egiten dugu proiektua eraikitzeko eta lanak gainbegiratzeko eta lanak erabiltzaileekin batera.

3 | Azpiegitura aldetik, zeintzuk dira Osakidetzaren premia nagusiak?

Eraginkortasun energetikoa da gaur egungo erronketako bat. Eguzkiaren eta lurpeko energia aprobetxatzea, eta erabiltzen dugun energia murriztea, adibidez. Europatik datozen legediek hori eskatzen dute. Askotan, eginda ditugun eraikinak konponduz eta babestuz lortzen dugu, egokitzen gabez edo ekipamendua hobetuz; eraikin berrietan, berriz, proiektu garaian ziurta dezakegu hormen lodiera eta materiala, besteak beste.

4 | Medikuntza asko aldatzen da. Ze behar nagusi dauka?

Ospitaleetan, 24 orduz lanean dihardutenez, oso azkar zaharkitzen dira instalazioak eta ekipamenduak. Beste alde batetik, medikuntzako arlo guztietan material eta teknologia berriak erabiltzen dira, eta horiek ere aintzat hartu behar izaten ditugu (ebakuntza geletan bideo edo ordenagailuko pantailak, mikrobioetatik babesteko gelak, laborategiak...). Informatikak gauza asko bultzatzen ditu, horregatik informatika taldearekin koordinatuta egon behar dugu. Eskanerrak dituzten

gelak ere ondo babestu behar izaten ditugu.

5 | Krisi ekonomikoak eragin dizue?

Bai, noski, baina lana ez da gelditzen. Nahiz eta eraikin berri gutxiago egin, beste lan ildo asko ditugu: Europako legediaren eskakizunak, sarearen berriztapena, hobekuntza... Eta esanguratsua da eraginkortasun energetikoaren esparruan egiten ari garena: fatxadak aldatu, galdarak berritu, energi iturriak hobetu eta kontsumoak gutxitu... nahiz eta proiektu bereziok ere pairatu diru urritasuna.

6 | Bilbotik egunero etorri behar duzu.

Bai, baina oso ondo antolatuta dauzkagu autobusak joan-etorriko bidaiak egiteko. Bestalde, astean behin bisitak egitera joan behar dut Euskal Autonomia Erkidego osoan zehar zentroak bisitatzea.

7 | Eta aisialdian, zeintzuk dira zure zaletasunak?

Gasteizen lan egiten duen bilbotar batek zaila dauka aisialdiaz gozatzea, surfa egitea gustatzen bazaio; horregatik, oporretarako uzten dut hori. Neguan, berriz, asteburu gehienak Athletic eta umeen futbol partidak ikusten pasatzen ditut, eta udazkenean eta udaberrian, mendira joaten naiz.

8 | Euskararekin nola zabilta?

Euskarari ekin nion Osakidetzan sartzearekin bat. Oztoporik handiena euskara lanean sartzeari. Orain, bigarren hizkuntza eskakizuna lortuta, lankide batzuekin egunero euskaraz egiteak asko laguntzen dit. Beste alde batetik, bezero euskaldunen artean euskara erabiltzeak hurbiltasun handia ematen dit, eta hori oso garrantzitsua da lan honetan; helburu horretarako euskaraz egiteak lagundu egiten dit.

“HELBURUAK: ERABILTZAILEEN BEHARRAK BETETZEA, TEKNOLOGIAKO ABANTAILAK SARTZEA ETA ENERGIA MURRIZTEA”

JOSU RENOBALLES BILBOTARRAK OSAKIDETZAKO EROSKETA, OBRA ETA ZERBITZU ESTRATEGIKOEN ZUZENDARIORDEZAREN MENPE LAN EGITEN DU. NAFARROAKO UNIBERTSITATEAN EGIN ZITUEN ARKITEKTURA IKASKETAK. ARLO PRIBATUAN LAN EGIN OSTEAN, AZKEN SEI URTEETAN OSAKIDETZAN DIHARDU. EUSKARA IKASTEN ARI DA RENOBALLES. ATHLETIC ETA SURFA EGITEA DIRA BERE ZALETASUN NAGUSIAK.

Ekipamendu: *equipamiento*
Energi iturri: *fuentes de energía*
Eraginkortasun energetiko: *eficiencia energética*
Eremu magnetiko: *campo magnético*
Esleipen: *adjudicación*
Galdara: *caldera*



“GIDABAIMENIK EZ
GENUENEAN GURE
GARRAIOBIDEA ZEN
PATINA”

IANIRE ELORRIAGA.

IANIRE ELORRIAGA BIZKAITARRA OSO GAZTE HASI ZEN PATINATZEN, NEBA NAGUSIAREN ERAGINEZ. **LEHIAKORRA** DA, ETA, ONDORIOZ, EUROPAKO TXAPELDUNA IZAN DA BEHIN BAINO GEHIAGOTAN. BAKION BIZI DA GAUR EGUN. BAKIOKO PATINATZE PISTAKO LURRA EGOERA TXARREAN DAGOELA DIO, ETA, HORREGATIK, MUNGIARA JOATEN DIRA ENTRENATZERA. ELORRIAGA NESKA KIROLZALEA DA: ARETO FUTBOLEAN ERE JOKATZEN DU.

TXAPELDUNA

Bakioko Ianire Elorriaga Europako emakumezkoen skate txapelduna izan da behin baino gehiagotan.

Zer da zuretzat patinatzea?

Pasioa da. Dibertitzeko era ere bada, eta gainera zeuk bakarrik egin dezakezu; lagunekin hobeto, baina bakarrik ere egin daiteke. Gainera, zeure burua menperatzeko modua da, gauza berriak ikasiz. Horrek poztasuna ematen du.

Ogia erostera patinatzen joaten zaren horietakoa zara?

Bai, halakoa izango nintzateke kalean bizi izango banintz; baina, mendian bizi naiz. Bilbon bizi nintzenean beti patinarekin ibiltzen nintzen, baita Bakion ere. **Gidabaimenik** ez genuen garaian gure garraioidea zen patina: edonora joateko erabiltzen genuen. Modu horretan **abilezia** hartzen da patinarekin.

Patinatzea: kirola, zaletasuna, bizitzeko modua... zer da?

Nik uste dut pertsona bakoitzarentzat gauza bat izan daitekeela; eta bizitzeko momentu bakoitzean ere gauza bat izan daiteke. Kirol moduan ikus daiteke, AEBetan adibidez kirola da; bizitzeko era ere izan daiteke, egunero erabiltzen duenarentzat, nahiz eta lehiaketetan parte hartu ez. Niretzat zaletasuna da, gustuko dudan zerbait.

Noiz konturatu zinen txapelketetara joateko moduan zeundela?

Egia esan, ez nintzen konturatu. Niretzat patinatzea jolas bat zen; behin Frantziara (Hossegorre) joatea proposatu zidaten, Europa mailako lehenengo nesken txapelketara (2000. urtean). Irabazi egin nuen eta konturatu nintzen ez zegoela horrenbesteko mailarik. Hara joanda lortu nituen gaur egun ditudan babesle garrantzitsuenak. Ondoren, beste herrialde batzuetara joateko deitu zidaten. Hiru aldiz joan naiz Frantziako txapelketa horretara eta hiruretan irabazi dut.

Gurasoek zer diote?

Beti izan dut euren laguntza. Jarrerara ona izan dute egin dudan guztiarekin, beti iruditu zaie ondo egin dudana, eta horregatik jarraitu dut honetan. Egia esan, sozialki zaila da neska bat horrela ibiltzea.



“Patinatzea ez da kirol oso lehiakorra, bakoitzak ahal duena egiten du”.

Zer esango zenieke neskei patinatzera animatzeko?

Esango nieke oso kirol polita dela, eta lagun asko egiten direla. Gainera, ez da oso kirol lehiakorra. Bakoitzak ahal duena egiten du. Garrantzitsuena lotsa kentzea da. Nahiko ondo ibiliz gero, neska barentzat samurragoa da aurrera egitea eta lehiatzea. Patinatetik bizi ahal izatea oso zaila da. Urte batzuetan izan dut aukera hori, baina gaur egungo krisialdiarekin oso zaila da. AEBetan hori posible da.

Zure patinatzeko moduak zer ezaugarri ditu?

Europa mailan neska askok ez dute aldapan patinatzen eta guk, aldiz, hemengo pistetan aldapa handiak ditugu. Txapelketetan ibilbideak izaten ditugu, hainbat oztoporekin; aldapak bakarrik abiadura hartzeko izaten dira. Baina, ondo moldatzen garenez, trukuak egiteko aprobetxatzen ditugu aldapak.

“Australian birritan egon naiz Munduko Txapelketan; beste behin Alemanian”.

Izan duzu lesiorik?

Bai, izan ditut. Guk ez dugu babesik eramaten; babesa eramaten dute U handian ibiltzen direnek. Hemen ez dago horrelako pistarik. Lesioak, batez ere, orkatiletan izaten dira.

Gorputz Hezkuntzako ikasketak egin zenituen eta gaur egun irakasle lanetan zabilta.

Ingeleseko irakasle ikasketak eta Gorputz Hezkuntza ikasi nituen. **Lehen Hezkuntza** (6-12) eta Haur Hezkuntza ibiltzen naiz normalean. Gustura nago irakasle lanarekin: ordutegi ona, oporrak... Umeei klaseak ematea gustuko dut. Ikasleek badakite txapelketetan parte hartzen dudala; gainera, beti sartzen dut patinatzeari buruzko eskolaren bat. Oso gustura ibiltzen dira, nahiko arrakasta izaten du.

Munduko Txapelketan ere parte hartu izan duzu.

KIROLA

Patinatzeaz gain, areto futbolean ere jokatzen du eta Gorputz Hezkuntzako irakaslea da.

Australian birritan egon naiz Munduko Txapelketan; beste behin Alemanian egon naiz, Münsterren, baita Pragan ere. Aurtengo Bartzelonako txapelketara ere gonbidatu naute: parte hartzaile gehienak AEBetakoak ziren, Brasildar bat ere bazegoen eta ni neu. Nesken maila gero eta altua da. AEBetan, adibidez, entrenamenduak izaten dituzte, eta txikitatik aritzen dira honetan.

Roxy Ianire Elorriaga Master Week. Zure izena zeraman udalekua izan zenuen?

Neska hasi berrientzako udalekua izan zen. Roxyk antolatu zuen eta arrakasta handia izan zuen. Neska batzuk kanpoan geratu ziren, plazarik gabe. Irakasle lanetan ibili nintzen, Holanda, Suedia eta Ingalaterrako beste hiru lagunekin. Udalekuak jarraitpena izan behar zuen, baina krisia dela-eta ez du aurrera egin.

Abilezia: *habilidad, destreza.*

Babes: *protector.*

Gidabaimen: *permiso de conducir.*

Lehen Hezkuntza: *Educación Primaria.*

Lehiakor: *competitivo/a.*

Orkatila: *tobillo.*



BERTSO AFARIA EUSKAL KOMUNITATEA BATUZ ETA EUSKARAZ SANO EGINEZ, GIRO EDERREAN

Osakidetzako Bilbo Eskualdeko Euskara Zerbitzuak bertso afaria antolatu zuen irailaren erdialdean, Bilboko Kafe Antzokian, 'Euskaraz bai sano!' kanpainaren harira. An-doni Egaña eta Arkaitz Estiballes izan zituzten jardunaren gidariak eta entretenitzaile apartak.

Medikuak, pediatriak, erizainak, administrazioko langileak... diziplina askotarikoak batu ziren mahai bueltan, tartean Jesus Larrañaga zuzendari gerentea, baita Giza Baliabideen zuzendari Miren Ormaetxea ere. Eta guztiak euskarak batu zituen, jakina.

Osakidetzako euskal komunitateko 40 bat lagunek mahaiaren inguruan elkartzea erabaki zuten eta, zer hobeto, punta-puntako bi bertsolariren emanaldi bikaina aitzaki. Helburua izan zen profesional euskaldunengana heltzeko bide berriak bilatzea eta elkar ezagutzea euskaraz, baita lortu ere.

Egañak eta Estiballesek, espero bezala, ondo baino hobeto bete zuten jarritako eginkizuna; eta Bilbo Eskualdeko Euskara arduradun Leire Sagastizabalek jarritako puntuak **harilkatzeaz** gain, osasuna, euskara, osasungintzako profesionalak

eta beste, hankaz gora jarri zituzten entzule mahaikide guztien gozamenarako.

Egañak eman zion hasiera bertso saioari "Sarri bakea topa egitean, gaur, berriz, osasuna" bukaera zuen bertsoarekin. Euskal Herriko eta Bizkaiko txapelduna, hurrenez hurren, beraien osasun gorabeheren harira elkarri **adarra jotzen** ibili ziren gus-tura; Egañaren osasuna dela edo Estiballesen 'pupitis'-a, gaixotasun ugari zerrendatuz eta egoera oso **xelebreak** irudikatuz.

Leire Sagastizabalek, bertsolariok 'euskararen goi mailako zirujau' gisa bataiatu zituen bertsoarako lehenengo gaia eman zienean. 'Euskaraz bai sano!' kanpaina **ahotan hartuta**, Estiballesek kontatu zigun bere familia artatzen duten Alde Zaharra osasun zentroko medikua erdalduna eta pediatria siriarra dituela; eta nagusiagoa den Egañak, berriz, Zarautzen mediku frankistek ere euskaraz egiten zutela.

Luze eta emankor jo zuen saioari bukaera eman aurretik, ezin beste modu batean izan eta, profesional euskaldunei adarra jotzeko unea heldu zen, eta alboan zuten Jesus Larrañaga gerentea bera ere ez zen salbu egon. Bukatzeko, Egañak botatakoa: "Ez du euskarak mediku onik, eskertzen dizuegu zuen euskararekiko grina".



ELKAR EZAGUTZEKO

Bilbo Eskualdeko profesionalen zuzendutako bertso afaria arrakastatsua izan zen, eta balio izan zuen beraien artean elkar ezagutzeko zein euskal profesional gehiago hurbiltzeko.



TREBAKUNTZA IKASTAROA

EUSKARAREN GAITASUN MAILA AITORTUTA DUTEN PROFESIONALEK AHOZKO JARIOA LANTZEKO EKIMENA

'EUSKARAZ BAI SANO!' KANPAINAREN BARRUAN, BILBO ESKUALDEKO EUSKARA ZERBITZUAK PEDIATRIAREN ALORREAN LAN EGITEN DUTEN PROFESIONALEI ZUZENDUTAKO TREBAKUNTZA IKASTAROA ANTOLATU DU BILBOKO SAENZ DE BURUAGA OSASUN ZENTROAN. 30 ORDUKO IKASTARO HORRETAN 14 LANGILEK -HORIEK ARTEAN MEDIKUAK, ERIZAINAK ETA EMAGINAK- DIHARDUTE EUSKARA HOBETZEN, HORRETARAKO PREMIA ADIERAZI BAITUTE.

Ikastaroan parte hartu duen ikasle bakoitzak **bizipen** propioa du euskararekin. Bada inguru erdaldunean lan egiten duenik eta familian edo lagun artean euskaraz norekin hitz egitea ez daukanik. Bada, halaber, lagun artean bai, baina lanean eta hain justu osasungintzaren alorrean euskaraz hitz egiten ausartzen ez denik... Segurtasun falta da gehienek aitortzen duten **gabezia**,

eta gaztelaniatik euskarara erregistroa aldatzeko beldurra kentzeko premia ikusten dute askok.

Dena dela, gehienek aitortzen dute ume txikien gurasoekin lan egiten dutenez, Bilbo Eskualdeko osasun zentroetako beste zerbitzu batzuetan baino euskara gehiago entzun eta hitz egiteko aukera daukatela, salbuespenak salbuespen. Askok umeei euskaraz hitz egiten

LOTSA KENDU ETA JARIOA HOBETU

Trebakuntza ikastaroan izena emandako pediatriako profesional ia guztien premia handiena da euskaraz hitz egiteko lotsa kentzea eta jarioa hobetzea.

dieta, baina ez, ordea, gurasoei. Mezua oker esango dieten kezka dute eta hanka ez sartzearen gaztelaniara jotzen dute askok.

Horren aurrean antolatzaileek trebakuntza ikastaroari honako helburu zehatzak jarri dizkiote: laguntza eskaintzea hizkuntza zuzen eta egoki erabiltzeko eguneroko jardunean; telefonoz zein aurrez aurre, harrera egin eta kontsultak bideratzeko gai izatea; eta ahozko erregistroan berezko ezaugarriak eta baliabideez jabetzea.

Adarra jo: *tomar el pelo*
Ahotan hartu: *hablar de, mencionar*

Ahozko jario: *fluidez verbal*
Bizipen: *vivencia*

Gabezia: *carencia, falta*

Harilkatu: *hilar, entrelazar*
Xelebre: *curioso/a, peculiar*

TREBAKUNTZA IKASTAROA | INKESTA



Izaskun
EMAGINA

Izaskun emagina da eta Bilboko Otxarkoaga auzoan egiten du lan haurdunaldiari jarraipena egiten. Txorierriko euskara, euskalkia, hitz egiten du, hori delako familian ikasi duena. Publiko aurrean egiten du lan umeen gurasoekin, baina lotsa ematen dio euskaraz hitz egiteak. Gainera, Otxarkoagan ez dauka lanean euskaraz hitz egiteko aukera handirik. Berarentzat erronka handia da lotsa hori kendu eta jendaurrean euskaraz lasai hitz egitea. Beldur da gaintzeko hiztunek bere euskalkia ulertuko ez ote duten. Horri aurre egiteko eta euskara hobetzeko trebakuntza ikastaroan eman du izena.



Carlos
PEDIATRA

Bilboko Hena kaleko osasun zentroko pediatra da Carlos. Galizian, Lugon, jaiotakoa da eta Henaoko kontsultan euskara, gaztelania, galiziera, ingelesa eta beste hainbat hizkuntza erabili behar izaten dituela kontatu du, gaur egun kultura askotako paziente eta gurasoak izaten dituelako. Orain dela 25 urte hasi zen euskara ikasten eta, bere ustetan, ez du euskaraz hitz egiterako jarioa handirik inoiz lortu, nahiz eta ahalegintzen jarraitu. Trebakuntza ikastaro honen laguntzarekin jarduteko erraztasuna lortu nahi du eta, mingaina, gehiago askatu.



**JUAN GONDRA
REZOLA**

Euskal Herriko Medikuntzaren historiaren gaineko aditua. Bilboko Udaleko Osasun Sailean, Basurtu Ospitalean eta Medikuntza Fakultatean jardun zuen, besteak beste.



MEDIKUEN BIOGRAFIAK

MADINABEITIA ANAIAK

XIX. ETA XX. MENDEEN ARTEAN, OÑATIKO BI MEDIKU OSPETSU NABARMENDU ZIREN: JUAN ETA JOSE MADINABEITIA ORTIZ DE ZARATE ANAIAK, HAIN ZUZEN ERE. BIAK MEDIKU TREBEAK ZIREN, ETA BIEK ERE POLITIKAREN ETA ARAZO SOZIALEN INGURUKO INTERESA ZEUKATEN ANARKISMOAREN ALDE. HALA ERE, PATU DESBERDINAK IZAN ZITUZTEN: BATAK, GARAILEARENA; ETA BESTEAK, GALTZAILEARENA.

Juanek (Oñati, Gipuzkoa, 1861-Bartzelona, Katalunia, 1938) Madrilen garatu zuen bere jardura profesionala (1903-1927). Hango Ospitale Nagusiko aretoko burua eta Unibertsitateko Patologia Orokorreko katedraduna izan zen 1927. urtera arte. Digestio aparatuko espezialitatearen arloan, Espainiako lehenengo eskola sortu zuen. Madrilen bizi ziren gipuzkoarrentzat, benetako **aingeru zain-tzailea** zen, edozein gaixotasunek jota zeudenean sendatu egiten zituelako. Politikaren aldetik, diruduna izan arren, anarkista teorikoen aldekoa izan zen. Horren ondorioz, fedez eta adorez, 1919. urtean Boltxebikeen Iraultza defendatu zuen Ateneoko hitzaldi batean. Azkenik, bere eskolako ikasle hauek aipatu behar dira: Luis Urrutia, Teofilo Hernando, Jimenez Diaz, Gregorio Marañon...

Juan Madrilgo Ospitale Nagusiko aretoko burua eta Unibertsitateko Patologia Orokorreko katedraduna izan zen 1927. urtera arte.

Josek, Bizkai osoan, Eibarren eta Madrilen lan egin zuen. Bere eginkizunen artean, "Gorbeia-ko Erietxea" bereizten da.

ARGAZKIAK


- 1) Jose Madinabeitia Ramiro de Maezturkin.
- 2) 1933. urtean. Madrilen bizi ziren ingeniari gipuzkoarrek, Juan Madinabeitiaren lagunak.
- 3) Juan Madinabeitia, bere semea, Carmen Castro Madinabeitia eta Nicolas Achucarro. (Gaceta Médica del Norte egunkari-ko argazkia)
- 4) Juan Madinabeitia (Añamendiren argazkia)
- 5) Gorbeia-ko Erietxearen irekiera (Villanueva Edo, A. Siete siglos de Medicina en Bilbao).

Josek (Oñati, Gipuzkoa, 1870-Bilbo, Bizkaia, 1923) izpiritu geldiezina zuen. Medikuntzaren aldetik, Bilbon eta Bizkaia osoan, Eibarren eta Madrilen lan egin zuen. Bere eginkizunen artean, "Gorbeia-ko Erietxea" bereizten da. Politikaren arloan, hasieran Sabino Arana-
ren jarraitzailea izan zen, gero sozialista, eta, azkenik, anarkista, bere anaia bezala. Badirudi Blasco Ibañez haren itxuran oinarritu zela 'El Intruso' **eleberrian** agertzen den medikua deskribatzeko. Hasiera batean, bere kontsultan mozkinak lortu bazituen ere, bere jarra politikoa zela eta Bilboko bezero asko galdu zituen, eta hurrengo urteetan fabriketako langileen mediku bihurtu zen, gehienetan ordainsaririk jaso gabe. Bere bizitzako azken urteetan, politikatik urrun, Medikuntzan eta Eusko Ikasketan hustu zituen bere indar guztiak.

EPIDEMIAK EUSKAL HERRIAN

1834KO KOLERA EPIDEMIA

KOLERA MIKROBIO BATEK ERAGINDAKO GAIXOTASUNA DA. **GORAKO** ETA BEHERAKO HANDIAK ERAGITEN DITU, ETA, HORREN ONDORIOZ, DESHIDRATAZIOA ETA HERIOTZA ERE BAI. INDIAN, ASPALDIDANIK ZEN EZAGUNA. EUROPAN, ALDIZ, XIX. MENDEAN LORTU ZUEN OSPE ILUNA, PANDEMIA BATZUEN ERAGINEZ.



Gehiago jakiteko liburu edo artikulu hauek irakurri daitezke: Manuel Ferreiro: El cólera en las transformaciones del siglo XIX en Álava. La epidemia de 1834. EHU, 2012; Manuel Vitoria Ortiz: Epidemias de cólera en Vizcaya. Bilbao, La Gran Enciclopedia Vasca, 1978; Ignacio Maria Barriola: El cólera de 1834 en San Sebastián. Donostiari buruzko Ikaskuntza Historikoen Buletina, 10. zk. (1976), 235-256. or.; J. Luis Munoa eta Mari Carmen Mendinueta: Epidemias de cólera morbo. Donostiari buruzko Ikaskuntza Historikoen Buletina, 16-17 (II): 869-903.

Bigarren pandemia 1830. urtean hasi zen Astrakanen. Europa osoa harrapatu zuen, eta milaka lagun hil ziren. Horiek horrela, 1834an ailegatu zen Euskal Herrira, guda karlista pil-pilean zegoela, eta Euskal Herri osotik zabaldu zen, herri txiki batzuetan izan ezik. Edonola ere, izurri horrek herri edo hiri bakoitzari kalte desberdinak eragin zizkion. Guda zela eta, zenbaki ofizialei mesfidantzaz begiratu behar diegu; Bilbon, adibidez, hildakoen kopuru erdia baino ez zen aitortu **hilkortasun tasa** azaltzeko.

Agintariak koleraren aurka hartutako neurriak izurria saihesteko erabiltzen zituztenen antzerakoak izan ziren:

- Garbiketa orokorra indarrean jartzea.
- Gaixoen etxebizitzak isolatzea.
- Elikagaiak biltzea, goseterik ez izateko.
- Mediku, **botikari** eta erizain nahiak izatea.

- Behin-behineko ospitaleak prestatzea (gaixoak isolatzeko).
- Ihes egitea (batez ere, dirudunen artean).

Baina neurri horiek ez zuten ezertarako balio izan, koleraren kutsadura arriskurik handiena bestelakoa izan zelako, izurri garaian izandakoaren aldean. Horren harira, ura izan zen kolera kutsatzeko eragilerik nagusietakoa.

Gipuzkoan, kostaldea izan zen gehien sufritu zuena; batez ere, Zumaia, Mutriku eta Zarautz. Barnealdean, ordea, Altxolak sufritu zuen kalterik handiena. Gipuzkoako datu ofizialek 8.302 gaixo eta 4.394 hildako aitortu zituzten.

Bizkaian, Bilbok, Abandok eta Begoñak pairatu zuten erasorik gogorrena, ia-ia 900 hildako egon ziren-eta. Orduan, hiria karlistek inguratuta zegoen eta errefuxiatuz beteta. Gainontzekoen artean, Bermeok (251), Barakaldok (69)

ARGAZKIAK

- 1) Bilbo 1835. urtean (gorriz, Bilbo defendatzeko harresiak).
- 2) Koleraren hedapena Iberiar penintsulatik zehar.
- 3) Bilbon, Atxuriko Ospitale osoa erabili zuten kolerako gaixoentzat. Beste gaixoak Erronda kalean zegoen behin-behineko ospitalera eraman zituzten.
- 4) Kolera kutsatzeko bideak
- 5) Bermeoko osasun egoerari buruzko txostena.

eta Portugaletek (60) ere hilkortasun handia pairatu zuten.

Arabako hilkortasunari dagokionez, Manuel Ferreireoren ikerketaren arabera, 145 herriri oldartu zitzairen, eta 1.166 lagun hil ziren.

1854-55ean, 1865ean, 1885ean eta 1893an kolera bueltatu zen Euskal Herrira, kalte handiak eraginez, baina herritarren oroimenean izurrite horietatik lehenengoa izan zen gehien nabarmendu zena.

Aingeru zaintzaile: *ángel de la guarda.*
Botikari: *farmacéutico, boticario.*
Eleberrri: *novela.*
Gorako: *vómito.*
Hilkortasun tasa: *tasa de mortalidad.*
Patu: *destino, suerte.*

GASTEIZKO ERIZAINTZA ESKOLA, PRAKTIKAK IPAR DITUEN HEZIKETA ERALDATZAILEA



GASTEIZKO ERIZAINTZA ESKOLAN LANEZ GAINEZKA DABILTZA IKASTURTEA HASITA. LEHEN MAILAN 80 IKASLEK HASI DITUZTE IKASKETAK ETA GUZTIRA 320TIK GORA IKASLE DAUDE. BERRIKUNTZA NAGUSI GISA, ESKOLAKO IRAKASLEEK PRAKTIKA ZENTROETAN DITUZTEN PRAKTIKEI LOTUTAKO GIDAK SORTU DITUZTE, IKASLEEK ZEIN TUTOREEK –OSASUNGINTZAKO PROFESIONALEK– ESKOLAKO IRAKASLEEKIN BATERA ERDIETSI BEHARREKO HELBURUAK ETA GAITASUNAK ZEHAZTEKO ASMOZ.

Ilusio handiarekin hasi dute Gasteizko Erizaintza Eskolan ikasturtea. Erizaintzako lehen mailan 80 ikasle berri dituzte; horietatik 50ek gaztelaniako hautua egin dute eta 30ek euskarakoa. Promozio berriko ikasle gehienak neskak dira, baina mutilak ere badira. Ikasturte hasierako ekitaldian gazteen artean urduritasuna eta ilusioa ziren nagusi. Harrera ekitaldian eskolako zuzendari Mari Carmen Yarrituk eta ikasketaburu Teresa Del Hierrok azalpenak eman zizkieten, eta irakasleek beraien buruak aurkeztu zituzten.

2010/11 ikasturtean Graduako ikasketak plan berria ezarri zenetik, irakasgai guztiak ikasketak plan berrira egokitu behar izan dira eta berrikuntza ugari eman dira Boloniako prozesuari egokitzeko, baina berrikuntza nagusia Practicum lotutakoa da, diplomaturarekin alderatuta praktika orduak nabarmen igo direlako. Ikasle

guztiak derrigor 2.000 ordu baino gehiagoko praktikak egin behar izaten dituzte Osakidetzako Arabako eta Debagoieneko (Gipuzkoa) ospitale eta osasun zentroetan zein Gasteizko Udaleko eta Arabako Foru Aldundiko zentro soziosanitarioetan; ikasketen ia erdia praktikek osatzen dute, gainera.

ASKO MIMATUTAKO PRAKTIKAK

Erizaintza Eskolako irakasle guztiak osasungintzan lanean aritutako profesionalak dira, eta Gasteizko Erizaintza Eskolaren eta praktika zentroen arteko harremana, oso aspalditik etortzeaz gain, oso hurbilekoa ere bada. Eskolak ikasleekin lortu nahi dituen helburuak **erdiesteko**, Practicum buruzko gidak landu eta gaurkotu dituzte. **Euskarri** horren bitartez ikasleek jakingo dute zehaztasunez zer ebaluatuko dieten, zer ikasi

ARDURADUNAK

Eskumaratik ezkerre-ra, Erizaintza Eskolako zuzendari Mari Carmen Yarritu eta ikasketaburu Teresa Del Hierro.

behar duten eta zer egiaztatu beharko duten. Era berean, praktika zentroetako profesionalak, ikasleen tutore lana egiten dutenek, eta ekipo asistentzialeko beste profesionalak jakingo dute zein jarraipen egin ikasleei, zer eskatu behar dieten, zer irakatsi... Practicum guztietarako gidak eginak daude errebisio eta hausnarketa prozesu sakon baten ostean.

Tutoreak eskolako irakasleekin koordinatu egiten dira, eta irakasleek praktikaldian zehar gutxienez hirutan bisitatzen dituzte praktika zentroak: praktikak hasi aurretik, helburuak zehazteko eta ikasle bakoitzaren praktikak ahalik eta gehien pertsonalizatzeko; praktiketan diharduten bitartean, jarraipena egiteko; eta bukaeran, balorazioa egiteko. Hala ere, ohikoak dira, baita ere, praktika zentroetan ezartzen ari diren berrikuntzak bere horretan ezagutzeko irakasleek egiten dituzten bestelako bisitak.

Gasteizko eskolakoek egiten dituzten praktikei lotuta, bada bestelako ezaugarri garrantzitsurik: Erizaintza Eskola honek duen tamaina kontuan hartuta, ikasle guztiak bermatuta dute praktikak hiru eremu asistentzialetan egin ahal izatea

(ospitalean, lehen mailako arretan eta maila edo eremu soziosanitarioan) eta jarraipen pertsonalizatua izatea. “Practicumetan 2.000 ordutik gora egin behar izaten dira eta hori osasungintzan diharduten tutoreei esker eta ekipo asistentzialeko profesionali esker bermatzen dugu”, azaldu du eskolako zuzendari Mari Carmen Yarrantuk.

Praktika zentroetako tutoreek egiten duten lanaz gain, 15 irakaslek jarduten dute egun osoz eskolan lanean. Hauekin batera beste hainbat irakasle agregatu daude, laguntzaileak. Hainbeste irakasle izatearen arrazoia da ikasgai guztiak euskaraz zein gaztelaniaz ematen dituztela. Elebitasunari begira, aipatu beharra dago “Euskara Teknikoa Osasunaren arloan” eta “Euskararen Arauak eta Erabilera” ikasgaiak ere eskaintzen dituztela. Horrez gain, administrazio eta zerbitzuetako langileak eskolaren funtzionamendu egokiaz arduratzen dira.

“Eskolak sortutako gidaren bitartez, ikasleek, praktiketako tutoreek eta ekipo sanitarioko profesionalak zehatz jakingo dute zer ikasi, zer ebaluatu eta zer egiaztatu”.

LAU URTETAN LANDU BEHARREKO GAITASUNAK

Lehen aipatutako eskolaren tamainak berak ahalbideratzen du ikasleei jarraipen pertsonalizatuagoa egitea eta, era berean, irakasleek lau urte horietan zehar ikasleari jarraipen globala egitea. Zuzendari Carmen Yarrantuk eta ikasketaburu Teresa Del Hierrok argitu nahi izan dute bi motatako gaitasunak bereizten dituztela: batetik, gaitasun espezifikokoak, ezagutza neurtzen dutenak; eta bestetik, **zeharkako gaitasunak**, lau urtetako ikasketetan zehar eta ikasgai guztietan zeharka eragingo duten bestelako jarraera eta **jokaerak**. Bigarren horiek ezarri eta neurtzeko irakasleen arteko elkarlana ezinbestekoa da.

EGOKITZAPEN LAN GARRANTZITSUAK

Bestalde, ikasturte berriari begira Erizaintza Eskolan egokitzapen lan garrantzitsuak egin dituzte. Hiru ikasgela txiki eta simulazioen tailerra eraldatuta, 54na



ikasle hartzeko moduko lau ikasgela berri sortu dituzte. Modu horretan eskolak emateko adina leku daukate, baina onartu digute ikasleek taldeko lanak egiteko eta ikasle kopuru txikiagoekin egiten diren **mintegiak** aurrera eramateko leku faltan daudela. “Liburutegia eta ikasteko gunea txiki gelditu dira, nahiz eta ikasleek Arabako Campuseko liburutegietara zein Gasteizko ospitaleetako biblioteketara joateko aukera ere izan”, onartu du Yarrantuk.

‘BIZITZA OSOA IKASTEN’

Erizaintza Eskolako arduradunek oso argi dute erizainek etengabe ikasten eta beraien burua birziklatzen egon behar dutela eta ikasleek jarrera proaktiboa hartu behar dutela. “Praktika etengabe garatzen doa, baita teknologia, osasun ereduak, osasun planak ere... eta, ikasleari utziz gero, atzean geldi zaitezke”, argitu du Del Hierrok. Eta eskolak ezartzen duen ereduaren gainean hau gehitu du: “Ikaslea ezin da etorri zer irakatsiko dioten entzutera, metodologiek aktiboak izan behar dute. Irakasleok orientatu egin behar dugu eta ikasleek bilatu eta landu. Unibertsitateak elementu **eraldatzailea** izan behar du”.

TALDE HANDIA

320tik gora ikasle daude eskolan eta 17 irakaslek jarduten dute lanean egun osoz.

Gasteizko Eskola zerk bereizten duen galdetzean, Yarrantuk eta Del Hierrok hiru ezaugarri nabarmendu dituzte: Osakidetzako, Gasteizko Udaleko eta Arabako Foru Aldundiko praktika zentroekin eskolak duen harreman estua; ikasle guztiek hiru eremuetan praktikak jarraipen pertsonalizatuarekin egingo dituztela bermatzea; eta ikasleek bereaiek urtero martxo aldera eskolako profesionalen laguntzarekin antolatzen duten erizaintzari buruzko jardunaldi zientifiko arrakastatsua.

Aurreneko bi ezaugarriak lehenetik azalduta gelditu dira, baina hirugarrenari, jardunaldi zientifikoari begira, azpimarratu dute ikasleen prestakuntzan garrantzi handia duela. Ikasleek jardunaldiaren gaiaren aukeraketan, programaren diseinuan eta garapenean parte hartzen dute. Hala, ikasleek beste era bateko gaitasunak garatu ditzakete.

Eraldatzaile: transformador/la
Erdietsi: conseguir, alcanzar
Euskarri: soporte
Jokaera: comportamiento
Mintegi: seminario
Zeharkako gaitasun: competencia transversal.



GETARIA, ITSASOZ ETA MAHASTIZ INGURATUTA

GIPUZKOAKO KOSTAKO HERRIA DA GETARIA. HIRIBILDUAK HAINBAT ALTXOR ESKAINTZEN DIZKIO BISITARIARI; KAI NATURALAZ ETA BADIAZ GAIN, GOTIKO GARAIKO ERAIKINAK DIRA NABARMENTZEKOAK GETARIAN. BESTALDE, GETARIAK IZEN HANDIAK EMAN DITU: GETARIAKOA ZEN JUAN SEBASTIAN ELKANO ITSASGIZONA ETA KRISTOBAL BALENTZIAGA JOSTUNA, ADIBIDEZ.

Getaria eta bere inguruak itsasoari loturik egon izan dira historiaurretik. Getariak baldintza geografiko bereziak ditu, esaterako, lehen mailako kai naturala eta Malakorbe izeneko itsas sakoneko **badia**, eta eguraldi txarretik ondo babestuta dago San Anton uharteari esker. Lotura horren erakusle dugu munduari bira eman zion lehen **itsasgizona**, Juan Sebastian Elcano herriko semea.

HIRIBILDUA: ALTXOR GOTIKOAK

Getariako kaleetan barrena hainbat altxor aurki daitezke. San Salvador eliza, esaterako, Euskal Herriko altxor gotiko handienetakoa da, XIV. eta XV. mendeetakoak. 1895ean Monumentu Nazionala titulua eman zioten elizari.

Getariako hiribildua harreresiz inguratuta egon da 1209an sortu zutenetik; eta, garai batean eliza harresiaren zatia zenez, Getariako kaleetako bat elizaren azpitik igarotzen da.

San Salvador elizari erantsita Zarautz eta Ochoa Ibañez de Olano dorretxeak daude. Bi etxeek Euskal Herrian parerik ez duen multzo gotikoa osatzen dute. XV. mendearen lehen erdiko eraikinak dira,

landutako **hareharriz** eginak. Bestalde, San Roke kaleko eraikin gotikoak Getariako arkitektura historikoaren **harribitxiak** dira. Beheko solairuetan garai bateko ganga zorrotzeko txakolindegiak dituzte.

GETARIAKO TXAKOLINA JATORRIZKO DEITURA

Horrez gain, Getariak badu berea den beste paisaia bat: mahastiak. Mahasti horietako mahatsarekin hain ezaguna den Getariako Txakolina egiten da. Getariako Txakolina **jatorrizko deitura** 1989an onartu zen, mahastizainek eta euskal administrazioak elkarlanean egindako lanari esker. Jatorrizko deituradun upategiak bisitatzeko hainbat aukera daude Getarian; horietan, txakolina antxoak gazituekin eta oliotako hegaluzearekin eskaintzen dute.

Badia: *bahía.*

Itsasgizon: *marino, marinero.*

Hareharri: *arenisca.*

Harribitxi: *pedra preciosa.*

Jatorrizko deitura: *denominación de origen.*

Joskintza: *costura, modistería, sastrería.*



Munduko moda bildumarik handiena

Kristobal Balentziaga jostun handiari eskainitako museoa 2011ko ekainaren 7an inauguratu zuten. Herriaren goialdean kokatutako Aldamar jauregiaren ondoan eraiki zuten Balenciaga museoa (Julian Argilagos arkitektoaren lana). Casa Torreseko markesen bizilekua izan zen Aldamar. Kristobal Balentziaga Eizagirre Getarian jaio zen urtarrilaren 21ean. Bere ama Martina Eizagirrereren bidez sartu zen **joskintza** munduan. Amak inguruko familia garrantzitsuentzat lan egiten zuen jostun gisa, eta Casa Torreseko markesen familia zegoen horien artean.

Cristobal Balenciaga Museoaren bildumak 1.200 pieza inguru dauzka eta Balentziagaren munduko bildumarik handiena izateaz gain, bilduma osatzen duten piezen kalitateagatik ere garrantzitsua da. Bi espazio handi eta sei areto ditu museoak. Museoaren helburua da moda sortzaileak goi mailako joskintzaren munduan izan zuten garrantzia zabaltea eta indartzea.



Zer moduz?

**Euskaraz
bai sano!**



**Ikur hau ikusten
duzunean egizu
euskaraz sano!**



Osakidetza



euskaraz
bai sano!



Osatuberrin
parte hartzeko
edo
aldizkaria
etxean jasotzeko
idatzi helbide
honetara:

osatuberri@osakidetza.net

Harpidetu zaitez!

**GRIPEAREN AURKA,
TXERTOIA JARRI**
IRAILAREN 23TIK AURRERA

Gripearen kontrako 2013ko
bertaketa kanpaina

Norentzat:

- 65 urtetik gorako pertsonentzat
- Gakotasun kronikoak dituztenentzat



PERSONA HELBURU

EUSKAL JAKINTZAREN ERKIDETZA EUSKAL JAKINTZAREN ERKIDETZA